

CAMPO / ARLOA

Ander IRASTORZA MINGO

**NAFARROAKO EUSKARAREN
MAILA LEHEN HEZKUNTZAN, ETA
BERAU BALDINTZATZEN DUTEN
FAKTOREAK**

TFG/GBL 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria
/
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**NAFARROAKO EUSAKRAREN MAILA LEHEN
HEZKUNTZAN, ETA BERAU BALDINTZATZEN
DUTEN FAKTOREAK**

Ander Irastorza Mingo

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea

Ander Irastorza Mingo

Izenburua

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

Gradu

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Ikastegia

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zuzendaria

Orreaga Ibarra Murillo

Saila

Euskara eta bere didaktika

Ikasturte akademikoa

2012/2013

Seihilekoa

Udaberria

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak hainbat esparrutan lagundu nau. Batik bat soziologiako arloa, ikerketa egiterako garaian bertan ikasitako hainbat irizpide kontuan hartu ditudalarik, adibidez galdeketen zatia. Hala eta guztiz ere, eta zeharka izan bada ere, oinarri bat izateko lagundu diguten ikasgaiak izan dira. Nolabait interes puntu ezberdinak piztu didalarik ikuspuntu ezberdinak kontuan hartzeko.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak bidea eman dit lan honen oinarri teorikoen nondik norakoa zehazteko. Batik bat hizkuntzaren didaktikan landutako gai askok; hala nola, elebitasun kontzeptuak, hizkuntzaren hausnarketa soziolinguistikoak, autoreen mintzamenak, etab. Beraz, esan dezaket proiektuko marko teorikoan nabarmentzen dela bereziki, baina orokorrean liburu osoan zehar etengabe buruan izan dudak ikasgaia izan da.

Halaber, Practicum modulua/ak zeresan handia izan du lan honi dagokionez, izan ere, bide eman digu bertan bizitako esperientzietatik, eta esperientzia horien behaketak batez ere, proiektu honen nondik norakoa zehazteko, edota hasierako oinarri batzuk jasotzeko. Practicum modulua, beraz, esan dezaket ez dela bereziki leku zehatz batean azaltzen, baina etengabe mintzatzen ditut proiektuan zehar bertan bizitako esperientziak adibide gisa. Bestalde, azterketa enpiriko hau lantzeko, practicumean egondako eskola berdina erabili dut aztergai, beraz, esan dezaket bereziki arlo experimentalean ikusten dela

Azkenik, aukerako modulua/ak, hau da orokorrak, ezingo nuke adierazi zehatz-mehatz non adierazten duen. Baina esperientzia gisa, esan dezaket aukera oso aberasgarria izan dela, hezkuntzako hainbat sektore ukitu ahal izan dugularik. Beraz, esan dezaket, ez dela bereziki leku batean egiten erreferentzia.

Gaztelaniaren agerpenari dagokionez, mintzatu behar dut honako atalak burutu ditudala atzerriko hizkuntza honetan: laburpena eta proiektuko 5. puntua, hots, ondorio orokorrak.

Laburpena

Nire proiektua, 2013. urtean Iruñerriko Amaiur ikastolako 5.A-ko ikasleen euskara maila aztertzea izango da. Proiektu hau egitea egokitu zaidan arren, aspalditik arduratzen nauen gaia da, izan ere, urteak daramatzat Iruñean irakasle izateko gradua atera nahian, eta hainbat eskoletatik pasa ondoren, ez da batere positiboa euskal hiztunak diren haurrak erakutsi duten maila.

Euskararen egoera ezberdina da tokian toki. Ni natorren lurraldetik, Gipuzkoa alegia, ez da hain nabarmena hizkuntzaren degenerazioa; hori dela eta, Nafarroan, eta kasu honetan Iruñean, haurren hizkuntzan eragiten duten faktoreak aztertuko ditut. Hala eta guztiz ere, eta hainbat hilabete eskolan pasa ondoren, errudun garrantzitsuenarekin egin dut topo, gaztelaniaren presentzia nabarmena hain zuzen ere.

Egun, Nafarroa guztia hartuta, dezente gehiago dira erdaldunak euskaldunak baino, eta honek izugarritzko eragina du lurralde honen jatorrizko hizkuntzan. Beraz, eta jakinda helburua ikasleen maila aztertzea dela, haratago joatea erabaki dut, izan ere, ez da nahikoa arazoa identifikatzea, arazo bat dagoenean betiere arazo hori ahalbidetu duten zenbait ezaugarri baitaude.

Hitz klabeak: Euskara, gaztelania, gaitasun komunikatiboa, testuinguru formala, testuinguru informala.

Resumen

Mi proyecto, se basa generalmente en analizar el nivel de euskara que tienen las alumnas de 5º de primaria, en la ikastola Amaiur de Iruña, en este curso 2012-2013. En mi trayectoria como alumno, he pasado por unas cuantas escuelas en mi etapa de la universidad y no ha sido nada positivo el nivel que las niñas han demostrado sobre el euskera.

La situación del euskara es muy diferente dependiendo del lugar en donde estés. En mi provincia, Guipúzcoa, la degeneración de la lengua vasca no es tan extrema como aquí. Por este motivo, uno de mis objetivos será identificar los factores

que condicionan la lengua de las alumnas de Iruña. Sin embargo, y tras pasar unos meses en la ikastola, he identificado el mayor problema de la cuestión; el castellano.

Por lo tanto, y sabiendo que el objetivo principal es analizar el nivel de euskera que poseen las alumnas, he decidido ir más allá, ya que no es suficiente identificar el problema. Siempre que hay un problema, existe otro algo que ha empujado a que exista ese problema.

Palabras clave: Euskera, castellano, habilidad comunicativa, contexto formal, contexto no formal.

Abstract

My project is based generally on the analysis of the level of Basque language that fifth grade students from the school Amaiur of Iruña have shown during this course 2012-2013. Throughout my university period I have been to different schools and the level proved to be not positive.

The situation of the Basque language is very different depending on where you are. In my province, Gipuzkoa, the degeneration of the Basque language is not as extreme as in Iruña. Hence, one of my goals will be to identify the factors that condition the language of the students from Iruña. However, and after spending some months at this school I have identified the main problem of this issue: the Spanish.

Therefore, and knowing that the main objective is to analyze the level of Basque that the students have I have decided to move forward since I believe it is not enough to just identify the problem. Whenever there is a problem, there is another reason behind for that problem to occur or exist.

Keywords: Basque, Spanish, communicative skill, formal context, informal context.

Aurkibidea

1. Aurrekariak, helburuak eta eztabaida	1
1.1. Aurrekariak	1
1.2. Helburuak	3
1.3. Eztabaida	4
2. Marko teorikoa	7
2.1. Gaiaren inguruko egoera orokorra	7
3. Metodoak eta materiala	21
3.1. Kurtso edota etapa batetako kokapena	21
3.2. Helburuak	22
3.3. Diseinua	22
3.3.1. <i>Behaketa</i>	23
3.3.2. <i>Idatzizko produkzioa</i>	23
3.3.3. <i>Ahozko produkzioa</i>	24
3.3.4. <i>Galdeketak</i>	24
4. Erantzunak eta ondorio zehatzak	27
4.1. Idatzizko produkzioa	27
4.2. Ahozko produkzioa	31
4.2.1. <i>Euskara mailari zuzendua</i>	31
4.2.2. <i>Emozioen adierazpena aztergai</i>	40
4.3. Galdeketak	42
4.3.1. <i>Galdeketa I</i>	42
4.3.2. <i>Galdeketa II</i>	52
4.3.3. <i>Irakasleari galdeketa</i>	60
Ondorio orokorrak	
Erreferentzia Bibliografikoak	
Eranskinak	
1. Eranskina: Galdeketa I	
2. Eranskina: Galdeketa II	
3. Eranskina: Galdeketa irakasleari	

1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA EZTABAIDA

1.1. Aurrekariak:

Hainbat dira gaur egun euskararen inguruko azterlanak egin izan dituztenak, izan ere, gure hizkuntza historian zehar mintzagai izan dugu, hein handi batean berak jasandako sufrimendua dela medio, eta beste hainbatean euskaldunok gure kulturaren esparru ezinbestekotzat jo dugulako, eta jotzen dugulako.

Euskarak, beste edozein hizkuntza baino egoera gogorragoak jasan izan ditu, izan ere, Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa kontsideratzen dugun honek, hainbat eta hainbat erasoen objektu izan da urteetan zehar. Eta gaur egun, euskaldunon oihu izaten jarraitzen duen hizkuntza zutik dirauen arrastorik esanguratsuena, lurralde honetako txokoetatik barna ibiltzea da. Gaur egun Euskal Herriko zenbait lekuetan euskara dute ama hizkuntzat; etxean, kalean, eskolan edota beste hainbat lekuetan erabiltzen da, eta berau da hizkuntza bat galdu ez izanaren arrazoi potoloena.

Baina esan bezala, euskarak ez ditu batere egoera xamurrak bizitu bere historian zehar, eta horrek eragina du gaur egungo erabilpenean. Euskarak jasandako erasoak, euskararen biziraupena ipini izan du tinka larrian behin baina gehiago. Frankismoa garaietan hizkuntzari eta orokorrean euskal kultura biolentziaz beteriko errepresio batez isildu eta ezkutatu zuen. Honek, jendearen berau hitz egiteko ohitura galtzea bultzatu zuen. Jendeak beldurra hartu zion hizkuntza hau praktikatzeari, leku askotan memoria linguistikoa pixkanaka desitxuratzen eta gutxiagotzen joan zelarik. Hau horrela, gaztelaniaren inposizio gogorrek, indarrean ipinitakoak administrazio zentralaren bitartez (hezkuntza zein bestelako instituzioetan), kanpoko hizkuntza honen erabilpena handitu zuen bertako hizkuntza bigarren maila batean utziz.

Honek guztiak, hainbat faktoretan eragin du. Lehenik eta behin jabetu behar gara, egon zela garai bat non euskaldun guztiak elebakarrak ziren. Euskaraz mintzatzen ziren non nahi, beraien lurraldeko hizkuntza zelako. Inguruko hizkuntzekin zerikusirik ez zuen gainera, honek bere nortasun ukaezina bermatuz. Baina pixkanaka, bertze hizkuntza “handiago” baten agerpenak, diglosi egoera larriagotzen joan zen, non

historiako jazoera ezberdinak zirela medio, diglosiak indar handia hartu zuen betiere hizkuntza handiaren mesedetan, eta txikiaren kaltetan.

Hau guztia dela eta, merezimendu handia da egun oraindik euskaraz mintzatu ahal izatea, baina badira hainbat buruhauste gaur egun hizkuntzak jasaten dituenak. Euskara, euskal lurralde osoko hizkuntza beharko luke izan, eta gaur egun ez bada, kanpoko hizkuntza bat sartu izanaren ondorioak pairatzen gabiltzan seinale da. Hau horrela, gaur egun ez dago euskal elebakarrik, eta elebakarrak egotekotan, elebakar erdaldunak dira ditugunak. Honek, diglosi egoera areagotzea suposatzen du, izan ere, geroz eta erdaldun gehiago dago, eta Nafarroa edota Arabako zenbait lekutan ez da euskara ere entzuten.

Hau horrela, gaztelaniak presentzia handiegia hartu izanaren ondorioak zuzenean eragiten diote euskarari hainbat arrazoi direla medio. Egun Nafarroan gizarteko testuinguru gehienak erdaldunduta daude, kalea, administrarritza, hedabideak, komertzioak, etab. Beraz, hizkuntzari erabilpen bat emateko arazoa aunitz larriagotu da, honek bertako biztanleen euskara mailan zuzenean eragiten duelarik. Azken finean aho transmisio galtzen den momentuan, hizkuntza honen ondorengo denaren euskara kalitatean nabaritu da, gaztelania jatorrago eta naturalagoa izango duelarik euskara bera baino. 1997. urtetik euskararen kalitatea eztabaidagai izan da, gaztelaniaren presentzia ikusgarriak hizkuntzari zuzenean eragiten ari zelarik. Jada hemen, garaiko intelektual berrien arreta bereganatu zuen kalitatearen gaiak, eta euskara jator eta egokia erabiltzearenak. Txillardegik (1978), Whorfek (1897-1941) teoriatik abiatuta, zioen hizkuntza batek bizitza irakurtzeko modua baldintzatzen duela, hau da, euskara berak, bizitza ikuspegi eredu bat planteatzen duela, bertako kulturatik abiatuta, eta zuzenean eragiten du hiztunaren pentsamenduan. Hau horrela, gaztelaniaren presentziak mundu ikuskera ere aldatzen du, eta honek euskaldunengan ondorio latzak pairatu ditu.

Horregatik, gai hau aukeratu izanaren zergatia, haurren hizkeran gaztelaniaren kutsu nabarmena ikusi izana izan da. Egun, hain erdaldunduta dagoen lurraldeak bertako hizkuntza mailan izan duen eragina aztertzeko beharra dago eta behar hori asetzeko premia ere bai. Ez da beraz, ahuntzaren gau erdiko eztula eskuartean

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta bera baldintzatzen duten faktoreak.

darabilgun gaia. Egun hurrek jasotzen duten hizkuntza eredia gaztelanian oinarritzen da, izan ere, eskolan euskararen garrantzia azpimarratzen den bezala, ez dute ikusten horren beharrik eskolatik at, eta honek haien euskara aberastu ordez, txiroagoa egiten du. Egitura gehienak, erdaratik hartzen dira, erdarakadak eguneroko ogia bezain normalizatua dago, eta hurrek euskarak duen komunikatzeko gaitasunari uko egiten diote emozioak sortzeko gaztelaniara pasatzen direlarik. Azkeneko hau, hurrekin izandako esperientzietatik abiatuta diot, izan ere, pozik, triste edota haserretzen ziren bakoitzean berehala pasatzen ziren gaztelaniara, euskaraz egiteko gai ikusi ez ditudalarik.

Azkenik, eskolak euskararengan duen paper garrantzitsuaz jabeturik, honen planteamenduaz eztabaidatuko dugu, eta euskararen kalitateari buruz egiten duen lanari erreparatzeko garrantzia ikusi dut. Izan ere, esan bezala hurren gune bakarrenetarikoa da hizkuntzarekiko sentsibilizazioa landu eta hizkuntzarekin hartu eman zuzenak landu ditzaketenak. Hori dela eta, bere egitekoak zeresan ugari izan dezake hurren euskara mailan, batik bat, kontuan hartuta euskaraz komunikatzeko gaitasuna gutxiagotzen ari dela.

1.2. Helburuak:

- Diglosi egoerak Iruñako hurren euskararen nola eragiten duen aztertu.
- Iturri ezberdinetatik hartutako informazioarekin euskarak jasan duen, eta egun jasaten ari den egoera aztertu, eta marko teoriko batetik abiatu, ondoren hau aztertzeko.
- Hurren euskara kalitatea aztertzea, eta maila hau baldintzatzen duten faktoreak bilatzea.
- Arazoa identifikatzen jakitea, ondoren honi irtenbide moduko bat eman ahal izateko.

1.3. Eztabaida

Atal honi dagokionez, hainbat erreferentzietatik oinarritu nezake, baina kontuan hartuta eskola mailara ugatzen den azterketa bat dela, ez dago oinarri sendoagorik LOE (2006/2) legeak eraiki zuen, eta Lehen Hezkuntza bera oinarritzen den curriculuma hartzea baino.

Lehen Hezkuntzako curriculumak, gainontzeko curriculumen moduan, zuzenduriko etapa horretako oinarriak hartzen dituen testuari egiten dio mintzo. Nolabaiteko arautegi honek, gaur egungo hezkuntza sistemaren sustraiak direla esan genezake, bertatik abiatuta irakasten baita gaur egun 6tik 12 urtera bitartean dabilzan haur guztiei.

Curriculumak, egun hezkuntza sistema definitzen du, bai eduki, helburu zein ebaluazio irizpide aldetik, eta noski, oinarritzko gaitasunen aldetik. Beraz, jakinda curriculumeko irizpideetara zuzenduta egon behar direla gaur egun estatu osoko eskola guztiak eskaintzen duten ikasgai oro, ikusiko dugu, hizkuntzaren trataerari eman beharko litzaken arreta. Beraz, curriculumak honen inguruan esaten duenari so egingo diogu, ondoren, egingo dudana azterketaren ostean ondorioztatuko dudalarik curriculumean esandakoa betetzen den ala ez.

Curriculuma hartuta, hainbat atal dira aztertzen direnak, baina nire kasuan, hizkuntzaren trataerari zuzenduriko atalak hartuko ditut. Horrela, atal oso garrantzitsu batekin egiten dugu topo, oinarritzko 8 gaitasunekin alegia. Gaitasun hauek, Europar Batasunak egindako proposamenaren ondorioz sortu ziren, eta curriculumaren bidez, hurrek hezkuntzako helburuak lor ditzatela lortu nahi da, ondorioz, curriculumak markatzen dituen oinarritzko 8 gaitasunak eskuratuz.

Hau horrela, zerrendan lehenengo azaltzen den gaitasunarekin egin dut topo; hots, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasunarekin. Nire azterketarekin zuzenean lotuta dagoen gaitasuna da hau, bertan egokitasunez eta hizkuntza komunikazio tresna bezala erabiltzearen alde dagoen gaitasuna delarik. Hori dela eta, honek esandakoa laburtuko dut hurrengo paragrafoetan.

Gaitasun hau hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta auto-erregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio.

Hau da, hizkuntza bera, komunikazio tresna gisa bezala ulertzen du curriculumak, ondorioz, berau lortze aldera egiten du. Hori dela eta, hainbat baldintza eta egin behar derrigorrezkotzat jotzen ditu. Izan ere, gure helburua komunikatzea bada, honek bide eman beharko liguke pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak azaltzeko, hauen inguruan hitz egiteko, ideiak sortzeko, ezagupenak egituratzeko, eta ondorioz, irakurtzen eta ahoz nahiz idatziz adierazterako garaian naturaltasunez eta erosotasun osoz jarduteko. Aldiz, ez da lan makala proposatutakoa egi bihurtzea, izan ere, komunikatu eta hizketan aritzeko beharrezkoa da inguruarekin loturak edota harremanak bermatzea bai testuinguru formaletan zein informaletan, izan ere, entzun, azaldu eta solas egiteko beharrezkoa da komunikazio egoera desberdinetan trukutzen diren ahozko mezuak azaldu eta ulertzea gero eta gaitasun handiagoa izan eta komunikazioa hainbat testuinguruetara egokitzeko gai izateko. Hortaz, curriculumak beharrezko ikusten ditu azken hauek praktikan jartzea, eta haurra ahalik eta testuinguru gehienetan hizkuntza erabiliz, komunikatzeko gaitasuna garatzea, horrela, egoera ezberdinetan ahozko testuak produzitzeko gai izango delarik.

Curriculumak argi uzten du gainera, testuinguru sozial eta kultural bakoitzeko komunikazio egoerara egokitutako solas mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, beharrezkoa dela hizkuntza sistemaren funtzionamendu arauak eta ahozko jardun egokia izateko estrategiak ezagutu eta erabiltzea. Hemen sartuko genuke gramatika eta zuzentasunari zuzenduriko parametroak, izan ere, komunikatzea helburu bada, araudi orokor baten barruan izatea ezinbestekoa da elkarren artean ulertu ahal izateko. Betiere, helburu nagusia komunikatzea izanik noski.

Hau guztiaz gain, irakurketak hizkuntzaren bereganatzean duen garrantzia ere erakusten digu, honek bide eman dezakeelarik informazioa bilatu, bildu eta prestatzeko eta asmo komunikatiboa edo irudimena duten testu mota ezberdinak sortu eta erabiltzeko. Azken finean idazteak ere, komunikazio ekintza bat suposatzen

du, eta irakurtzeak idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatu eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta gainera, bestelako inguruneak, eta irudimena bera garatzeko tresna bezala balio dezake. Beraz, ikusten dugu, curriculumak garrantzi handia ematen diola irakurketari hizkuntza gaitasuna lortze aldera.

Laburbilduz, esan genezake curriculumak derrigorrezko hezkuntza bukaeran hizkuntza gaitasuna garatzearen ondorioz, ahozko eta idatzizko hizkuntza testuinguru desberdinetan menperatzeko gai izatea bermatuko duela. Ondorioz, haurrak errealitatea irudikatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera azaltzeko erabiliko dute hizkuntza.

Behin curriculumak aztertu ondoren, badakigu zein den, hizkuntzaren funtzio nagusia, eta beraz, eskolan landu beharrekoa, komunikazio gaitasuna alegia.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Gaiaren inguruko egoera orokorra

Alderdi teorikoa betetzeko, eta proiektu hau eraikitzeko oinarri teoriko batetik abiatuz, hainbat dira hemen sakonduko ditugun gai, zein faktoreak. Gaur egun, Nafarroan, euskaraz mintzatzeko arazoa dagoela onartu behar dugu, bai eta hitz egiten den euskara txiroa dela, egokitasun aldetik eta jatortasun aldetik gutxienez. Gizarteak, oro har, hots, kalean, etxean, lagunekin edota beste edonolako testuinguruan ez du beharrik ikusten euskaraz hitz egin, eta berau gure komunikazioko tresna nagusi izateko. Gaur egungo haurrek, nolabait, garai batean izan zezaketen euskal zaletasun honi uko egin diote, hizkuntza honek duen aberastasuna gutxiaraziz, edota berau ikasteko grina apalduz. Baina nola da posible 10 urteko haur batek gure historian zehar bidai lagun izan dugun hizkuntza alde batera uzteko hautua egin izana? Hor dago koska, haurrak ez duela erabakitzen. Haur batek esperientzien bitartez ikasten du, egunerokotasunean gertatzen zaizkion gertakariez ikasten du, bere testuinguruan dauden jazoera, egoera, ekintza jolas, hartu-eman zein bestelakoetatik ikasten du, hau da, tokian tokiko gizartearen ezaugarriez, eta norberaren inguruan sortzen diren gertakizunez baldintzatua dago. Ez da euskaltzaletasuna galdu duela 10 urteko ume batek, euskal zaletasun falta nabari bada, bere inguruan eman delako da; hau da, etxean gaztelania gehiegi entzuten duelako, edota erdaraz irakurtzen duelako, edota kaletik hori bakarrik entzuten duelako, edo akaso gure herriko "izendatzaileei" (politikariei) entzuten dielako. Hori dela eta, gaiaren inguruko ikuspegi orokor bat emateko, hainbat iturrietatik hartutako informazioa hartu dut, eta bertan gaur egungo haurren euskara kalitatea gutxitu izanaren nondik norakoak aztertzen saiatuko naiz.

Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun Nafarroan euskaraz hitz egiteari uko egin izanaren zergatia bilatzea, izan ere, honek bertako jendearen euskara kalitatean eragina izan du. Hein batean memoria linguistikoa ezabatua izan delako, eta bestalde, memoria linguistikoa kontserbatzen duten haiek gutxitan hitz egiten dutelako. Horrela ahozko transmisioa desegin, eta euskarak duen jatortasuna galtze bidean dago.

Jakin badakigu, euskarak ez duela bilakaera xamurra izan bere historian zehar, hainbatetan, Espainiar kolonizaziotik hona jasan duen errepresio bortitza dela medio. Hainbat izan dira pasa beharreko hesi altuak, erromatarretatik hasita, gaztelarren konkistara heldu arte. Azkeneko honek gaur egun oraindik dirau, eta foruen abolizio, frankismo eta bestelako neurriekin gure hizkuntza, zeina esaten den Europako zaharrena ez ote den, isilarazi nahi izan den berau lur-azpian utziz.

Aldiz, egun Euskal Herriko kaleetatik barna dabilen edozein atzerritar ez gaztelania ez eta frantsesa den hizkuntza baten berri izango duelako zalantza izpirik ez dago, euskara gure artean bizirik jarraitzen duelarik. Hala eta guztiz ere, eta euskaldunek geure hizkuntzaren biziraupenerako egindako esfortzua baztertu gabe, bada lekuri egun Euskal Herrian non euskara ahantzi den. Memoria linguistikoa galdua da Gaztelarekin mugan dauden hainbat eta hainbat herrietan. Herri horiek, gaztelaniaren eskutik ezarritako “mano dura” delakoarekin isilduak izan ziren bere garaian, eta biolentzia tresna nagusi izanik, gaztelania inposatu zuten hainbat eta hainbat lurraldeetan. Gainera, eta susperraldi ekonomikoa zela eta, Espainiatik milaka atzerritar etorri ziren bertako industria aldera eta hiri gunetara lan bila. Honek ere, sekulako zeresana izan zuen euskararen biziraupenari dagokionez, izan ere, elebidunen maila igotzen hasi zen, eta euskal elebakarrena jaisten. Aldiz, milaka lagun ziren gaztelar elebakarrak zirenak, eta honek eragin handia izan zuen gizarteko hainbat esparruetan, batez ere gaztelania maila sozialean normalizatzeari begira.

Egoera orokorrean hartuz beraz, ikusten dugu euskara oso gogorki izan zela kolpatua, gaztelaniaren presentzia irmoa zela medio, eta hainbat lurraldeek ondorio lazgarriak izan dituzte gertaera hauen ondorioz. Horietako bat, ez bairik gabe Nafarroa da, zeina Arabarekin batera hainbat eskualde dituen gaztelania hutsean egiten direnak. Hori dela eta, hizkuntzaren gatazka zutik dirau Euskal Herrian, izan ere, foruen aboliziotik ezarritako administrazio zentrala, oraindik ere zilegikotasun ofiziala du bertako lurraldean, eta hortaz, euskara hainbat lekuetan hizkuntza koofizial bezala ulertzen da. Eta beste hainbatetan ulertu ere ez da egiten aurretik esan bezala. Badira noski, hainbat leku, batez ere barrualdean daudenak eta memoria hobeago gordetzeko aukera izan dutenak non euskara oso bizirik dagoen, eta etorkizun polita duen. Baina

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

jakinda nire azterketa Nafarroara mugatzen dela, aitortu behar da euskararekiko harreman eskasena duen lurraldea dela nahiz eta euskal lurraldeak izan.

Lurralde honek bereziki oso egoera latzak pasa ditu Gaztelaren errepresioa lehen eskutik eta modu bortitzenean jasan izan duelarik. Esan bezala, memoria linguistikoa ere larriki ukitua du hegoaldean eta lurralde guztian gehien entzuten den eskualdea iparraldeko zonaldean dago.

Frankismoak larriki zauritu zuen euskararen aztarna Nafarroan, debekuen bitartez eta zigor gogorrak ipiniz praktikan jartzen zuen orori. Hala eta guztiz ere trantsizioak esperantza piztu zuen, berau galdua zuten euskaldun nafarrengan, izan ere 1980ko azaroaren 3an, Nafarroako lehen parlamentuak euskararen ofizialtasuna onartu zuen lurralde osoan:

“Gaztelania eta euskara Nafarroako bi hizkuntza ofizialak izanen dira. Oinarri hau Nafarroako Foru Hobekuntzaren oinarrietan txertatuko da, eta Parlamentuak eskumen osoa izango du lege baten bidez arautzeko” (Jaime Ignacio Del Burgo: 1980).

Hau sekulako askatasun eztanda izan zen bertako herritarrentzat. Hala ere, gutxi iraungo zien marraztutako esperantza faltsuen zakuak, izan ere, hurrengo urtean Foru Hobekuntza bera berregituratzeari ekin zion Parlamentuak, hau horrela, euskararen zonifikazioaren alde egin zuten, euskararen ofizialtasuna eskualde euskaldunetara mugatzeko nahia azalduz. Erantzuna handia izan zen. Euskararen Legeak eztabaida politikoaren arreta osoa bereganatu zuen, eta Roman Felones Hezkuntza kontseilariak eta Gabriel Urralburu presidenteak berak, aurreproiektua lan egiteko zirriborroa zela esan behar izan zuten, euskaldunen aldarrikapen eta kontra-politikak sortu zuen presioa kontuan hartuta. Hala eta guztiz ere, eta garai horietan UPN koalizioak zuen indar metaketaz baliatuz, 1986an “Ley del vascuence” delakoa onartu zuen.

Lege hori onartu zenetik, Nafarroa hiru zonaldeetan banatzen da gaur egun; alde batetik euskaldunen sektorea, bestetik zonalde mistoa eta azkenik eskualde ez-euskalduna. Zonifikazioaren eraginez Nafarroan euskaraz ikasteko eskubidea ukatu

zieten Nafarroako herritarrei, izan ere, eskualde ez-euskaldunean bizi diren haiek, nahiz eta euskararekin erabat harremanak egon, ez dute inongo aukerarik beraien zonaldeko zerbitzu publikoan euskaraz mintzatzeko. Eta bestalde, zonalde mistoan bi hizkuntzen ofizialtasuna bermatzen den diskurtsoa erabiliz, euskara bigarren maila batean uzten dute, izan ere, gaztelania da zonalde mistoan gaur egun gehien hitz egiten den hizkuntza inongo dudarik gabe.

Ondorioz, ikusten dugu, alderdi soziokulturalen botereaz gain, instituzioek ere gaur egungo Nafarroan euskaraz bizitzeko sekulako oztopoak ipintzen dituztela. Batetik, administraritzak ezarritako oztopoak direla medio, eta bestetik herritarrak azken hamarkadetan jasandako zapalkuntzak ekarri zuen espagnolizazioa dela eta. Horrela, gaur egun Nafarroan oso euskara gutxi hitz egiten da, eta hitz egiten dena iparraldean izan da. Iruñea eskualde mistoan kokatzen da, eta nahiz eta euskara gaztelarekin ofiziala izan, praktikan ez da betetzen, askoz zailagoa delarik euskaraz bizitzea erdaraz baino eta honek harreman zuzena du euskararen eguneroko erabileran. Eremu honek zerikusi estua du kalitatearekin. Zutabe honetan biltzen ditugu honako balioztapenok: euskara mordoiloa, maskala, estiloric gabea, ez gatzik ez piperrik duena, traketsa, ezin irentsia, ezin gozatu eta ezin adierazi ari da euskalduna, baldres, trauskil eta zantarra, trakets alaena, berezkoa du ajea, hantustearen eta ez jakinaren umea, ...Hala eta guztiz ere, kontuan hartzekoa da ikastolen sorreratik hauek egiten dabilzan lan gogorra elebitasun baten alde borrokatuz, izan ere, gaur egun euskaraz ikasteko hautua egiten duten haur kopurua handituz doa, beraz hizkuntza ikasteko borondatea geroz eta gehiago dago. Hau balorazio erabat positiboa da, baina bada egun arduratzen duen gai bat, eta benetan kontuan hartu beharrekoa dena; haurren euskararen maila edota kalitatea.

Esan bezala, haur gehienak testuinguru erdaldunetatik datoz. Zailki aurkitu dezakezu haur bat etxean bi gurasoak euskaldunak dituenak, edota bere lagunak euskaldunak direnak, edota bere aisialdia euskaraz egiten duena. Gaur egungo haurrak, garai batean gertatzen ez zen bezala, erdaraz bizi dira, gizartea hizkuntza horren inguruan egituratzen dute, eta ez dago gunerik, eskola izan ezik noski, hizkuntza autoktonoa praktikan jarri dezaketena. Honek guztiak ondorio zuzenak ditu

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

euskararengan; izan ere, gaztelaniako hainbat eta hainbat ezaugarri txertatzen dira etengabe euskarari, beraz erabat txirotzen delarik. Euskara aberatsa da bere osotasunean, baina gaur egun Nafarroan, ahozko transmisioak indar handia galdu duenez, euskararen jatortasun eta fluxtasun hori galdu du.

Beraz, ikusten dugu geroz eta haur gehiago direla D eredia ikasten hasten direnak, baina arazo bat ere badagoela; gizartea alegia, izan ere, haurrak euskara praktikan jarri eta haien kabuz eta normaltasunez pixkanaka ikasten joateko aukera ez dute apenas. Hori dela eta, beraien inguruari so egin eta gaztelara pasatzen dira. Honen guztiaren ondorioa, gaztelera jatorragoa izatea bultzatzen die euskara baino. Gainera, euskarazko egiturak eta betiko lexiko, esamolde, eta ezaugarriak erderazko kutsua duten beste hainbatekin nahastu dira, eta honek ondorioztatzen du gaur egungo haurren euskara maila, zeinak jatortasunean baino egokitasunean ere atzerapen handia ematen ari diren. Beraz, nahiz eta ikusi nolabaiteko berreskuratze prozesu batean gaudela, euskal hiztunen kopurua dirudi arduratzen gaituela, eta ez euskara beraren kalitateak.

Azken finean Txillardegik ondo zionez (1978) elebitasun osoa lortzea oso zaila da, izan ere, beti jotzen dugu denok hizkuntza batera edota bestera egoeraren arabera edota hiztunaren arabera, eta nahiz eta erdal erdaldun elebakar gutxiago egon euskaldun elebidunak baino (ez dela egungo kasua), nahikoa da erdal elebakar gutxi batzuk egon elebidunen talde handi batean, nahikoa izango dela erdaraz egiteko. Eta hau da gaur egun nafar euskaldunek bizi duten egoera tamalgarria.

EUSKARAREN KALITATEA

Esan bezala, egun ematen ari den lanketa, hots, euskararen biziraupen eta normalizazioaren alde egiten ari den lanketa, gehiago bideratzen da euskal hiztun kopurua handitze aldera hiztunen kalitatera baino. Horren adibide da Nafarroan egin diren hainbat azterketa soziolinguistiko, non erakusten den D eredian matrikulatzen diren haur kopurua handitzen ari den (Orreaga Ibarra: 2011. 24.orr.). Baina zer esan nahi dugu kalitateaz, edota maila onaz mintzo garenean? Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko “Euskararen Kalitatea”-n zioen:

Lizardik baino prosa "hobeagoa" idazten du gaur egungo edozein gaztek, baina inork ez du haren grazia [...] Mintza eta idazkera korrektu bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, jardun neutro bat, mintza eta idazketa inuzentearen bila. Eta beharrezkoa zen. Bizitasuna sakrifikatu behar zen zuzentasunaren truke, euskara biziko bazen. (Izagirre, 1981)

Izagirreraren hitzok 1981ekoak badira ere, esan liteke kalitatearen inguruko kezka ez dela 1997 aldera arte nagusitu. Aldiz, gaur egun mintzagai den gaia dela esan genezake.

Aurretik ikusi dugun bezala, Nafarroa erabat erdaldun bihurtu da urteen poderioz, eta honek euskararen etorkizuna tinka larrian utzi du. Hala eta guztiz ere, gaur egun berreuskalduntze prozesu batean murgildurik gaude, baina duela 20 urte euskararen biziraupenak larritzen zuen bezala, gaur egun euskaldunen euskarazko mailak arduratzen du. Izagirrek dioen bezala, estu heldu diogu mintzamen eta idazkera zuzenari, hots, zuzentasun maila egokira iristea izan da gure hezigune guztietan lehenetsi den kontzeptua. Aldiz, euskararen bizitasunari ez zaio garrantzirik eman, eta horrela diogu egun haurren euskara, bai eta hurrei erakusten zaien auskara, mordoiloa dela, maskala, estilorik gabea, ez gatzik ez piperrik duena, traketsa, ezin irentsia, ezin gozatu eta ezin adierazi ari da euskalduna, baldres trauskil eta zantarra, traketsa alaena, berezkoa du ajea, hantustearen eta ez jakinaren umea, ...

Kalitatea, edota maila ona, kontzeptu lauso eta nahasia da hizkuntzari dagokionean. Hona hemen, Eusko Jaurlaritzak "Euskararen kalitatea" liburuan, kalitatearen inguruan zenbait hizkuntzalariek esandakoa:

- *Bizitasuna da kalitatea. Aurkakoa, berriz, zuzentasun gramatikal hutsa* (Izagirre)
- *Hizkera bero eta hurbilean dago kalitatea. Aurkakoa, hotz eta arrotza* (Zuazo: 2000)
- *Erraz eta ulergarria dena da, kalitatezkoa* (Zubimendi eta Esnal: 1993)

- *Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora kamutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza kamutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik, errua, behiala Axularrek zioenez. (Mitxelena: 2001)*

Koldo Mitxelenak zioen lez, hizkuntza komunikatzeko tresna da, hau da, bestearengan eragiteko tresna, eta gaitasun hori galtzen badu ez du bere funtzioa betetzen, beraz ez du balio komunikatzeko. Azken finean, euskarak ez badu balio gure buruak lasaitzeko eta gure kideengan emozioak eragiteko, euskara hori ez da kalitatezkoa izango, nahiz eta oso zuzenki esanda egon. Argi dago esaldiaren egokitasunaren barruan zuzentasunez egiten bada aunitz hobeto dela, izan ere, euskararen helburu nagusia hori da, egoki eta zuzen hitz egitea. Baina zertarako nahi dugu zuzentasuna baldin eta gure hitzekin ondo komunikatzeko gai ez bagara?

Beraz, orain hainbat zalantza sortzen dira buruan, eta “euskara on” horrek sortzen dizkigun buruhausteez jabetzen gara. Zein izango da euskara ona? Gramatikalki zuzena dena edota komunikazio aldetik egokia dena?

Horretarako Ibon Sarasolak euskararen kalitatearen barruan sartzen diren hiru parametro zehaztu zituen (1997). Hiru maila hauek kalitatearen inguruan dugun ideia erakusten digu. Alde batetik zuzentasuna, bestetik jatortasuna eta azkenik egokitasuna:

Zuzentasuna: gramatikalki egokia denari deritzo zuzena. Ortografia, joskera, ahoskera, ... maila askotan daragi zuzentasunak.

Jatortasuna: Euskararen senaren edo usadioaren araberakoa da euskara jatorra. Jatortasuna naturaltasunarekin lotzen da, eragiteko gaitasun horrekin, euskararen baliabide estilistikoekin, herri hizkerarekin eta batez ere ahozkotatasunarekin.

Egokitasuna: Bere xederako egokia dena da euskara egokia. Zuzena izateaz gain, argi eta garbi ulertzen dena, komunikazioa errazten duena, lehenengoan aditzeko modukoa. Izan ere, mezu-hartzaileak aukera bakarra izaten baitu (gehienetan) mezua aditzeko; eta mezua "hartu" ezean, ez dago komunikaziorik.

Nolabait esatearren hizkuntza maila egokia hiru irizpide hauek bere egiten dituen horrek sortzen duena izango da. Azken finean zuzentasuna ez da nahikoa; testu batzuk ulergaitzak baitira, izan ere, guztiz zuzenak izan arren. Horixe da euskara gordinaren ezaugarria: zuzena da, baina nekez ulertzen da. Eta hauxe da euskara gordinaren emaitza: inkomunikazioa. Horra, euskara batuaren etsairik kaltegarriena; izan ere, zertarako balio du hizkuntzak, baldin eta (ulergaitza den heinean) komunikatzeko balio ez badu? Zuzentasunak, hortaz, laguna behar du osagarri: egokitasuna.

Beraz, eta hizkuntza bat komunikazio tresna den moduan, komunikatzeko balio behar du, eta hori da xede nagusia. Hala eta guztiz ere, esan dugu zuzentasunak ere bere garrantzia duela, izan ere, gorputz hizkuntzaz edota hitz klabe solte batzuk ematen ere komunika daiteke, baina komunikazioa modu zuzenean egiten baldin bada arazorik gabe ulertzeko parada handiagoa da. Bestalde, ezin dugu ahaztu jatortasunak euskarari ematen dion, eta berez duen, piper eta bizitasun hori. Euskara abestuz hitz egiten da, euskara txantxatua da, estiloz betea, eta hori da gaur egungo haurrei entzuten ez zaiena.

Azkeneko urtean eskolan pasatako hiru hilabeteetan ez dut ume bat bera ere honelakoak esaten: *Ahoa bete hortz utzi nuen, Banengoen ba, ni!, Ez dauka zer eginik!, Gaitz-erdi!, Gorriak ikusitakoak gara gu*, etab. Euskarazko hitz, esamolde edota atsotitz, lokuzio eta esaera asko arrotz egiten zaizkie haur askori, eta asko ezagutzen ez dituzten bezala, beste batzuk ezagututa ere ez dituzte erabiltzen. Hori dela eta, erabilera esparruak irabaztea ezinbestekoa da, beraz, hizkuntzaren kalitatean eta adierazkortasunean aurre egitekotan.

Hori da landu beharreko sektorea. Egun jendea ez da haserretzen, maitemintzen, liluratzen, goibeltzen, etab. euskaraz. Orokorrean esan genezake ez dituela bere emozioak adierazten euskaraz, eta honek zeresan handia du. Maiz Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

pasatzen dira erdarara horrelako adierazpenetan, bai eta beste askotan ere. Nolabait esatearren esan genezake euskal-erdara bateko nahasketa baten aurrean aurkitzen garela. Gutxi batzuk jada “euskañol” izena jarri diote eta bereziki nabarmena da euskara ikasten ari diren haurretan. Izan ere, erdarak haien inguruan duen presentzia nabarmenari, haurren informazioa xurgatzeko gaitasuna gehitzen badiogu, haurrak erdarazko joera nabarmena izango du gizarteko sektore gehienetan. Azken finean ikaskuntza informalak ia formalak bezainbeste elikatzen du haurra, izan ere, komunikatzen duen guztiak hezten du. Telekomunikabideek hezten dute, iragarkiek hezten dute, gurasoek hezten dute, politikariek hezten dute, inguru guztiak hezten du. Eta inguru guztia erdaldunduta badago, haurra gaztelaniaz heziko da nahiz eta eskolan euskara irakatsi. Honi atxikirik, garrantzitsua deritzot Whorfen teoria aztertzea, izan ere, zioen hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat ematen diola hiztun bakoitzari, beraz, baldin eta hizkuntza batean edo bestean hezi, mundu ikuskera bate do beste izango duzu. Teoria hau ondoren sutzuki defendatuko zuen Txillardegik “Hizkuntza eta pentsaeran”(1978, 405.). Azken finean, hizkuntza batek bere egiten ditu bai intonazio, sistema, hizkera eta beste hainbat ezaugarri; eta hauek guztiak mundu ikuskera zehatz bat irudikatzen dute. Sarasuak ere honakoa zioen:

Euskarak eskaintzen du harreman mundu bat, sorkuntza mundu bat, mundu estetiko bat, eraikitzen ari den mundu bat, zirkuitu batzuk erderak ematen ez dizkidatenak. Eta hor sortzaile izateko aukera du gazteak, eraikitzeke dagoen mundua delako. (Sarasua. 2012)

Beraz, azken gehigarri hauei jarraiki, ez da soilik euskararen maila zalantzan jartzen, bizi eredu bat baizik, bizi ikuspegi bat. Eta hurrek egun, hain erdaldunduta dauden inguruetan ibilita, gaztelania hartzen dute hizkuntza nagusitzat, honek suposatzen duenarekin; bai hizkuntzaren kalitatearen aldetik bai eta mundu ikuskeraren aldetik.

Hau da euskararen minbizia, inguru erdaldun masiboa alegia. Euskararen egoera desorekatua (minoritarioa) izanik, erdarak sekulako distortsioak (desitxuraketak) sortu ditu euskal hizkuntza komunitatearen barne garapenean, garapen hori guztiz baldintzatzeraino. Nafar euskaldun askoren ingurua ia erabat

erdalduna da, gainera, gutxi dira inguru nagusiki erdalduna izan eta denboraren erdia baino gehiago euskaraz egiten dutenak, eta azkenik, aurretik mintzatu bezala, erdarak erabat nagusitu dira esparru askotan; hala nola, hedabideetan, kalean, etxean, etab. Honako egiaztapen hauek ondorio zuzenak izan ditu lurralde honetan, horrela, euskaldun elebakarrak desagertu egin dira eta euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorriz erdaldunak eta erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino. Azken finean, kontuan hartu behar da azken hamarkadetan hainbat mendetan egon ez den lurralde-hedapen handia izan duela euskarak, batez ere gazteenen artean, antzina mintzatzeko genuen matrikulazio tasen igoera dela medio. Honek, fenomeno ez ohiko baten aurrean kokatzen agitu; izan ere, Nafarroan dauden haur euskaldun gehienak gaztelaniaz hobeto moldatzen dira euskaraz baino. Beraien jatorria erdalduna da, gurasoak erdaldunak dituztelarik. Honek hainbat ondorio ditu, eta ondoriorik lazgarriena gaztetxoek erabilera eskasa da. Honek zuzenean eragiten dio haurren euskara mailari Orreaga Ibarrek bere liburuan ongi azaltzen duen bezala:

Gazteek egunero euskaraz egiten duten erabilerari dagokionez, berriz, adierazi da euskara gainbeheratua erabiltzen dutela, aditzik, syntaxirik edo azenturik gabekoa eta ageriko hiztegi-urritasuna daukana. (O. Ibarra: 2007. 24orr.)

Hau dela eta, jada ohitu gara honelakoak entzutera: “atzo ez nizun ezagutu”, “bi dendan egon gara”, “hotz bat daukat”, “nik ya badakit”, “nire amak nahi duelako ikastea ingelese(n) (nik ikastea)”, etab. Esaldi hauek, oso ohikoak dira haurren testuinguruan, eta euskararen jatorriaren erabat aldentzen dira, gaztelania hutsa direla esan dezakegularik.

Orreaga Ibarrek “Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa” liburuan gazte euskaldunen ezaugarri nagusi batzuk adierazten ditu, zeinak zerikusirik asko duten egun haurrek erabiltzen duten ezaugarriekin, hurrenez hurren liburuan azaltzen diren hainbat ezaugarri ipiniko ditut ideia bat egitearren:

- *Eske* fokalizazioa eta ezkerreko lokadura: *Eske* jendea hemen...
- Subjektu ergatiboaren eta aditz iragankorraren arteko komunizadurarik eza, plangintza ezagatik. Batzuetan horren arrazoia enuntziatuaren egiturazko

plangintzaren akatsa da. *Bai, ni egin dut. / Udala egiten du... Ni ez daukat ezta hori. // Hori ni daukat diskete batean.*

- Solaskideari seinaleak egitea, arreta deitzeko, ustekabea adierazteko, adostasuna agertzeko: *ai, bai!, ya!, yasta!, bale!, bai!, benga!*
- Diskurtso-partikulak: *pues, bueno, o sea, ez dakit zer, nik zer dakit?*
- Interjekzioak: *jo!, a!, Tira!, bua!*
- Hitz neutralak diskurtso-balioarekin erabiltzea: *onbre!, benga!*
- Iraindu edota laidotzen duten hitzak: *una mierda, puto futbol, putamadrekoa.*
- Gaztelania eta euksararen arteko kode aldaketa:
 - Egongo dira hemen, *ahí, heladas de frío.*
 - Gero gelditzen zait *como una sensación.*
- Azalpenezko makulu-hitzak: *hala nola o sea, eta, pues, eske, ya...*
- Aditzak ezkerrean kokatzea: *Bai, da hojaldre antzekoa. Bai, da neska bat...*
- **Da** aditz laguntzailea edo **dago** esaldiaren hasieran jartzea:
 - Baina eske **da** guztia oso teorikoa, *tio.*
 - Eske **da** *una mierda de carrera.*
 - **Dago** hiru kilometrotara.
- Adierazgailu bereziak: eta hori...
 - Ez dakit ez zen fiatzen edo zer azkenean ez dit utzi... eta hori... eta gero eroakbezala.

Ibarrak ongi azaltzen dituen akatsa hauek, maiz entzun izan ditut eskolako testuinguruan hurrekin solasean ibiltzen nintzenean; izan ere, erabat ohikoak dira honelako ezaugarrien errepikapena egungo haur euskaldunetan.

Behin euskararen kalitatean zerbait murgildu ondoren, euskal hiztunen iturri izaten ari den hezkuntza sistema aztertzeko garaia iritsi da. Ikastolen egitekoa beti izan da agurgarria gure hizkuntzaren biziraupenari dagokionez. Gaur egun ere euskaraz mintzo diren biztanle kopurua handitzearen arrazoi nagusia D ereduan matrikulatzen ari diren haur guztiengatik izaten ari da. Alde horretatik eredugarria da, hauek egiten duten lana. Hala eta guztiz ere, bada 1997tik hizkuntzalari edota irakasle askoren artean helarazi den zalantza; zer sustatzen da eskoletan, euskararen kantitatea ala kalitatea?

Lehenik eta behin adierazi behar da ezin dela batere motibagarria izan haur batentzat hizkuntza bat ikasten egotea ondoren berau praktikan jartzeko gunerik ez badago. Ikasle oro, ikasten ari dena ikasten ari dela ere, ikasitakoa erabiltzeko aukerak eta beharrak eragin zuzena dute motibazioan. Hori dela eta nafar haurrek zailago dute euskara maila egoki batetara iristea inguruak ez baitu animatzen berau ikasi eta garatzea.

Baina nahiz eta inguruak ez lagundu, eskolak zeregin garrantzitsua du hizkuntzaren kalitatea gehiago bultzatzeko. Azken finean, eskolan irakasten dena hizkuntza zuzentasunari zuzendua izan da egokitasunari beharrez, eta honek arazo bat suposatzen du haurren euskara mailari dagokionez. Egokitasuna, aurretik definitu dugun bezala, gaitasun komunikatiboari erlazionatzen zaio. Horrela, eskolaren jarrera egoera komunikatibo estandarizatu eta normalak lantze bidean jo beharko luke, honen zerbitzura gainerako guztia jarriz. Izan ere, gaur egun D eredia ez da errezeta paregabea euskararen normalizazioaren alde. Ikasle askok etxean ezin dute euskaraz egin, familiako inor hizkuntza berean erantzuteko gai ez delako, eta kalean beste hainbeste gertatzen zaie. Hori dela eta, gaur egun Nafarroako ikastolen eginkizuna ez luke zuzentasunari zuzenduta egon behar honen testuingurua kontuan hartuta. Ikastolek komunikazioa gehiago landu beharko lukete kontuan hartuta haurren ingurua oso erdaldunduta dagoela.

Gainera, eztabaidan ipini dudana bezala, egun, Nafarroako curriculumak hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasunean, adierazten du nola hizkuntza komunikazio tresna den, eta horretarako bideratu behar den hizkuntza behar bezala ikasteko. Azken

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

finean azpimarratu dugu hizkuntza bat pentsamenduak, emozioak eta bestelakoak sorrarazteko balio behar duela. Ideiak bururatzeko, kritikotasuna garatzeko, eta nolabaiteko bizikidetzara aurrera eramateko. Hau horrela, ikusten da egungo eskolek ez dutela behar bezala lantzen gaitasun hau, umeak ez direlarik gai euskararen bitartez behar bezala komunikatzeko.

3. METODOAK ETA MATERIALAK

3.1. Kurtso edota etapa batetako kokapena

Nire azterketa, 5. mailan dauden, hots, 10 urte dituzten haurretan oinarrituta egin dut. Orotara 21 hurrez osaturiko ikasgela hartu dut aztergai, zeinak 10 mutilak diren eta gainontzeko 11ak neskak, eta azterketa Amaiur ikastolan kokatu dut. Hau aukeratu izanaren arrazoia, azken 2 praktikaaldiak bertan egin izana izan da, izan ere, hain ondo ezagutzen nuen taldea izanda, ez nuen beste inora jo behar aztertzeko subjektuen bila.

Apur bat kokatzearen Amaiur Ikastola, Iturrama auzoan kokatzen da eta orain dela 25 urte luze auzoa errotzen hasi zen ikastola dugu. Gaur egun, oso ezaguna eta baloratua den ikastetxea da, ez bakarrik Iturramako biztanleen artean. Ikasturte honetan dauden ikasleen artean, Donibane, Mendebaldea, Etxabakoitz, Noain, Salinas, Mutiloa eta Iruñerriko eta Iruñeko beste zenbait auzoetatik datozen haurrak dira.

D eredia aurrera eramaten duen ikastola dugu, hau da, euskara tinko eta zurrun defendatzen duen ikastola. Bere printzipio nagusietan dago hizkuntzaren iraupena, eta horretarako beharrezkoa den euskararen erabilpena eskolako. Horra hor bere helburu nagusietako bat:

“Euskal kultura eta euskarekiko motibazioa eta erabilera bultzatuz ikasle hiztun euskaldunak eta eleanitzak heziko dituen ikastola, ahozkotasanaren metodologiari lehentasuna emanez.”

Beraz, eta ikastolako oinarriari erreparatuz, ikasle euskaldunak bilatzen dituen eskola batean kokatzen gara, non haurrak euskaraz ikasteko aukera paregabea duten. Hala eta guztiz ere, eta nire aztergai izango diren haur taldea definitzen jarraituz, esango nuke eleanitz erdaldunak diren taldea dela. Izan ere, euskaraz maiz egiten badute, ikasgela barruan izanen da irakaslea parean dagoen momentuetan. Aldiz, atea zeharkatu bezain pronto gaztelaniara pasatzen dira, euren eskolatik kanpoko bizitza gaztelaniaz egiten dutelarik.

Bestalde, eta kontuan hartuta marko teorikoan landutako Nafarroako egoera, gehientsuenak testuinguru erdaldunetik eratorriak diren haurrak dira. Horietako asko, guraso erdaldunak dituzte, eta haien ingurua erabat erdaldunduta dago euskararen erabilpena erabat mugatuta dagoelarik eskolatik at.

3.2. Helburuak

- Euskararen erabilpenean adierazitako aberastasuna neurtu, betiere erdaratik harturiko egitura, hitz, adierazpen edota beste ezer.
- Nafarroako Lehen Hezkuntzako 5.mailako haur talde baten euskara maila aztertzea, hizkuntzaren kalitateari so eginez, eta horrela erdarak honengan izan duen eragina aztertuz.
- Haurrek euskararekiko duten sentsibilizazioa aztertu.
- Haurren ahozko diskurtsoa aztertzea testuinguru informaletan, eta euren euskara maila aztertu ahozko produkzioari dagokionez.
- Idatzizko testuak hartu (testu formalak) eta erabiltzen dituzten egitura, lexiko, zein bestelakoei erreparatu Ibon Sarasolak hizkuntza kalitatearen inguruan eginiko hasunarketaren hiru parametroetan oinarrituz.
- Haurren euskara kalitateari eragiten dioten faktoreak aztertu; hala nola, etxeko egoerak, aisialdi guneak, testuinguruak, etab. Betiere behaketa bidez edota galdeketak pasatuz.
- Egungo hezkuntza sistemak euskararen duen eragina aztertu, eta hizkuntzaren biziraupenean, eta beronen kalitatean honek duen zeregin garrantzitsuaz jabetuz, bere lana ongi egiten ari den baloratzea.

3.3. Diseinua

Hainbat dira nire proiekturako erabili ditudan azterketa metodoak. Nire asmoa azken finean, euren euskara mailatik abiatuz, euskara maila horren zergatia bilatzea izango da. Horretarako, lehenik eta behin, euren euskara maila aztertzeko parada emango didan materiala beharko dut. Behin euskara maila aztertuta, euskara maila Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

horren zergatiaren bila joko dut, nolabait arazoaren erroa bilatu nahian. Hau guztia aztertzeko, 4 izan dira erabilitako metodoak:

3.3.1. *Behaketa:*

Behaketari dagokionez, demagun ideia orokor bat egiteko balio izan didala. Nire praktika garaian, hots, Amaiur ikastolan pasa ditudan 3 hilabetetan, gai honekiko ideia orokor bat egin ahal izan dut, eta bertatik nire oinarri teorikoak bideratu ditut arazoaren muina lana hasi bezain pronto identifikatu dudalarik. Behaketak, haien arteko egunerokotasuna aztertu, eta nire lanaren zergatia bilatzen lagundu dit hasieratik argi izan dudalarik zein den honen guztiaren iparra.

Honetaz gain, euskara ikasgaiko dinamika behatzeko aukera ere izan dut. Horrela, hezkuntza ikuspegitik, eskolak duen papera behatu ahal izan dut, ondoren honi nolabaiteko irtenbidea proposatu ahal izango diodalarik. Azken finean, ikastolan pasatako denbora guztian euskara ikasgai egon naiz buru-belarri, eta hainbat kritika egin ahal izan dizkiot ikasgaia ematen den moduari.

3.3.2. *Idatzizko produkzioa:*

Idatzizko produkzioekin, euren euskara maila aztertzeko aukera paregabea emango dit. Izan ere, eskolako lan batetik harturiko testuak dira. Honek suposatzen duen formaltasun maila jakinda, bide ematen dit aspektu formalean egindako lanaren balorazioa egiteko. Azken finean, nahiz eta ahozko produkzioan izan euren euskara kalitatea adieraziko duen arrazoi gorena, hemen ere, ondorio mamitsuak atera ditzaket.

Betiere, kontuan izan behar dugu, ariketa idatziek aukera handiagoa ematen dutela hizkuntzaren inguruan hausnartu eta sortzen dugunaren inguruan pentsatzeko. Gainera, kontuan hartuta aste beteko epearekin aurkeztutako ipuinak direla, argi dago prozesu motel baten bidez egindako lana izan dela. Honekin, beraz, marko teorikoan mintzaturiko Ibon Sarasolaren (1997) hiru kontzeptuak aztertzen saiatuko naiz, hots, zuzentasuna, jatorritasuna eta egokitasuna. Betiere, testu formal bat den heinean, zuzentasun eta egokitasunari emango diodalarik garrantzi gehiena.

3.3.3. *Ahozko produkzioa:*

Ahozko produkzioaren kasuan, idatzizkoaren erabilera berdintsua emango diot, hemen ere, euren maila aztertzea izango baita helburua. Hala eta guztiz ere, badago idatzizko sorkuntzatik ezberdintzen den zerbait, eta nolabait espontaneogoa den hizkuntza dela. Azken finean informalagoa da, eta argi eta garbi erakusten digu hizkuntza menperatzen duten edota ez duten menperatzen. Hori dela eta, hainbatetan grabatuko diet, haien akatsei erreparatuz, eta ondoren hauek aztertuz. Horrela, euren euskara maila aztertu ahal izango dut, eta akatsak zergatik gertatzen diren ikusi ahal izango dut. Gainera, nahiz eta eskola orduetan grabatu, beraiek eroso sentitzen diren momentuak bilatuko ditut, hor ikusiko baita benetan zein huts egiten dituzten maiz edozein testuinguruan.

Bestalde, emozioak nola adierazten dituzten ere aztertuko dut ahazko produkzioa erabiliz. Horrela, aztertu ahal izango dut ea euskara erabiltzen duten komunikazio tresna gisa, edota emozioak sortzeko tresna gisa. Azken finean, jakin badakigu euskarak beste edozein hizkuntza bezala komunikatzeko gaitasuna duela, baina egungo gazteek gutxitan erabiltzen dutela berau emozioak sorrarazi edota adierazteko. Hori dela eta haserrea, tristura, maitasuna, edota harridura bezalako emozioak adieraztea eskatuko diet. Horrela, haurren erantzunen arabera behar ditudan ondorioak ateratzeko.

3.3.4. *Galdeketa (ikus. Eranskinak 1 eta 2):*

Galdeketen kasuan, aukera paregabea emango didate haurren euskara maila baldintzatzen duten kanpoko faktoreak identifikatzeko, eta arazoa puntu gutxi batzuetan zentratzeko. Azken finean, galdeketen bitartez, gaia zuk nahi duzun norabidean orienta dezakezu, eta kasu honetan, nire lanerako interesatzen zitzaizkidan galderak egin dizkiet bai hurrei, bai eta irakasleari ere.

Hizkuntza maila aztertzen ari naizelarik, eta arazoa identifikatzeaz gain, irtenbideen bila nabilen heinean, ezinbestekoa nuen gehienbat datu kualitatiboen bila joatea, izan ere, hainbat argudio behar ditut haurren euskara testuinguruari dagokienez. Orotara bi galdeketa egin dizkiet hurrei euren euskara erabilpenari Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

zuzenduta; adibidez, etxean zein hizkuntza erabiltzen duten, aisialdi librean zein hizkuntza, lagunekin, telebista ze hizkuntzatan ikusten duten, etab. Azken finean, behin euren maila identifikatuta, haien inguruan nagusiena den hizkuntza aztertu behar da, euskara bera garatzeko dituzten aukerak ikusteko eta erabilera handitzeko guneak sustatzeko.

Hala ere, kualitatiboez gain, badaude kuantitatiboak izan daitezkeen erantzunak ere. Adibidez telebista ikusten duten galderari hiru erantzun posible ematen badituzu, argi dago emaitza kuantitatiboak lor ditzakedala. Edota euskara baliogarria egiten zaien galderari, nahiz beste hainbati. Honek, kopuruei begira, emaitzak argi eta garbi ikustea ahalbidetuko dit. Eta ikusleari ere, askoz garbiago egingo zaio grafiko bidez, edota ehuneko zein zenbakien bidez ematea erantzunak.

Laburbilduz, galdeketak informazio iturri izango dira, eta hauekin, nire azterketarako ezinbestekoa izango diren edukiak lortu ahal izango ditut. Beraz, esan dezakegu garrantzi gehien eman diodan atala izan dela.

4. ERANTZUNAK ETA ONDORIO ZEHATZAK

Aurreko atalean, hots, diseinuan, argitu dut zeintzuk izango diren nire azterketarako erabiliko ditudan metodologia motak. Orain, bakoitza landu ondoren, ateratako erantzunak azaleratuko ditut. Metodo bakoitzak erantzun mota ezberdinak emango dizkit horrekin lortu nahi dudanaren arabera, beraz, datorren puntu honetan, metodo bakoitzari emandako erabilera azalduko dut jarraian erantzunak adieraziko ditudalarik.

4.1. Idatzizko produkzioa

Atal honetan, zeresan handia izango dute teorian mintzatu ditudan hainbat kontzeptu, baina batik bat Ibon Sarasolak (1997) kalitatearen inguruko hainbat hausnarketen ondorioz, hizkuntzaren kalitatea definitzeko erabiliko dituen hiru parametroak izango dira aztertzeko erabiliko ditudanak. Alde batetik zuzentasuna, bestetik jatortasuna eta azkenik egokitasuna. Hiru parametro hauek idatzizko produkzioan aztertzearen arrazoi nagusia, nolabait hurren euskara formala aztertze aldera egin dut.

Beti ere, eta arestian aipatu dudan moduan, jakitun naiz idazterako garaian, hizkuntzaren inguruan hausnartzeko asti gehiago dugula, eta horregatik egin dut azterketa hau bereziki testu idatzietan. Hemen ez baitago momentuko produkzioak eragin ditzakeen akatsik. Hemengo akatsak hausnarketa prozesu txiki baten bidez emandakoak izango dira.

Aukeratutako testu idatziak, hurrek egindako ipuin batzuetan oinarritzen dira. Ipuinak espresuki denborarekin bidaliak izan dira hurrek pixkanaka egin eta fundamentuz idatzi ahal izateko. Nahiz eta 21 ipuinak izan nire esku gutxi batzuk baino ez ditut aukeratuko azterketa egiteko. Hau horrela, esaldi edota testu zati txikiak hartuz, zuzentasuna, jatortasuna eta egokitasun kontzeptuekiko hausnartuko dut:

1. *Gizon zaharra aurrari egan egitera erakutsi zion, esan zion, egan egiteko, begiak itsi eta konzentratu behar zela, hori egitean egan egin zuen eta oso hazkar zijoan egan egiten.*

Ez da ZUZENA. Akats ortografikoak nonahi daude, eta gramatikalki ere ez du maila egokia ematen. Gainera, ez ditu modu egokian erabiltzen koma eta puntuak testuak koherentzia galtzen duelarik.

Ez da JATORRA. Oso euskara txiroa erabiltzen du, ez ditu lokailuak erabiltzen eta bere idazkerak ez du inolako naturaltasunik erakusten.

EGOKIA izan daiteke igorleak esan nahi duena ulertu daitekeela kontuan hartzen badugu. Hala eta guztiz ere, koma eta puntuen erabilera txarrak esanahia desitxuratzen du, eta erabiltzen duen hiztegi, zein egiturak ez du laguntzen testsua ulertzea.

2. Gizon gazte batekin tokatu zitzaion konpetizio eta sua bota zitzaion eta gizon gaztea erre zuen.

Ez da batere ZUZENA ez eta JATORRA. Erdarakaden erabilerak euskararen zuzentasun zein jatortasunari eragiten dio zuzenean. Gainera, zerbait botatzerakoan ez zaio norberari botatzen, izatekotan “erori zitzaion” izango litzateke, baina kontuan hartuta haurraren asmoa han zer edo zer botatzea zela “bota zion” izango litzateke zuzena. Gainera “eta” juntagailuaren errepikapenak ez du batere aberasten esaldia jatortasuna galtzen duelarik.

Ez da EGOKIA. Ez du ongi helarazten bere asmoa, hori dela eta ez da mezua argi iristen irakurlearengana.

3. Bazen behin neska eta mutil bat oso lagunak zirela.

Ez da ZUZENA. Izan ere, “bazen behin” esaten duenean pertsona bati egiten dio erreferentzia. Aldiz, irakurtzen jarraitzean ikusten da bi pertsoneri zuzentzen dela, hortaz “Baziren behin” izan beharko luke.

JATORRA izan daiteke. Izan ere, “bazen behin” egitura betidanik gure ipuinetan azaltzen den errekurtsua da.

EGOKIA izango litzateke baldin eta zuzentasun hobea baluke, hala eta guztiz ere mezua iristea lortzen du.

4. *Horixe! Oraitxe bertan joaten naiz etxera eta prestatzen naiz.*

Ez da ZUZENA. Ahozko produkzioa lantzen dugun atalean, sintaxiari zegokion zatian, akatsik ohikoenaren aurrean gaude berriro ere. -ten atzikia -ko edota -go atzizkien ordeztartzen du, erabilera txarra ematen diolarik aditzari.

JATORRA izan daiteke. Batik bat hasierako “Horixe!” horrengatik. Hala eta guztiz ere, ez da egitura aldetik egokia beraz, hanka motz gelditzen da jatorrasunari dagokionez.

EGOKIA izan daiteke. Mezua iritsi da, ulergarria delarik esaten duena, hala eta guztiz ere, euskara gertuagokoa erabiliko balu, egokiago litzateke.

5. *Hor barruan iratxo txiki onak eta sorgin handi maltzurak bizi ziren.*

ZUZENA da oso. Oso ondo antolatu du esaldiaren egitura eta hitzen ordena ere errespetatu du.

JATORRA da. Iratxo eta sorgin hitzak euskara jatorraren seinale argiak dira. Hala eta guztiz ere badago zer esan iratxo “on” horren inguruan, izan ere “maltzur” hitzaren antonimoa “zintzoa” litzateke eta ez ona. Hala eta guztiz ere, jatorra da esaldia.

EGOKIA ere bada. Mezua guztiz helarazten da eta lehenengoan. Komunikatzea lortzen du.

6. *Marta neskato bat zen, herri batean bizi zen Arnedillo zuen izena, bere aita (Joaquin) bere ama(Rebeca) eta bere ahizpa (Iratirekin) bizi zen.*

Ez da guztiz ZUZENA. Parentesien erabilera okerra ematen da. Gainera koma eta puntuen falta sumatzen da.

Ez da JATORRA. Egiturak ez daude ondo, izan ere, “herri batean bizi zen Arnedillo zuen izena” ordezt, “Arnedillo izeneko herri batean bizi zen” izango litzateke.

Ez da EGOKIA. Ez du argi uzten Arnedilloekin zeni egiten dion erreferentzia, Neskari edota herriari.

7. *Egun batean, Marta bere lagunak bilatzera joaten zela, txakur txiki bat aurkitu zuen.*

ZUZENA da. Komaren erabilpena egokia da eta egitura ere behar den bezalakoa da.

JATORRA da klaserako ipuin bat delarik.

EGOKIA da mezua behar den bezala jaso dudalarik.

8. *Orduan ordenagailura joan zen, bilatzeko. Eta kanpamendu bat aurkitu zuen. Ingelesez zen eta Txuki oso ondo hitz egiten du.*

Ez da ZUZENA. Lehenalditik orainaldira pasatzen da esaldiaren egitura desitxuratzen duelarik. Gainera modu oso jarraian ipintzen ditu puntuak.

Ez da JATORRA. Ez ditu lokailuak erabiltzen esaldiak lotzeko, eta honek aunitz eragiten dio testuaren jarraipenari.

EGOKIA izan daiteke komunikazio aldetik, baina hizkuntza ez du menperatzen, modu egokian idazten ez duelarik.

Ondorio zehatzak:

Azterketa honi dagokionez, esan genezake hurrek ez dutela maila egokia adierazi testu formal hauetan. Hizkuntzaren jariotasun falta dago orokorrean, eta berau menperatzen duten argudio nahiko ez dago. Euskara txiroa erabiltzen dute, teoriarik esan bezala, euskara mordoilo bat da, maskala, estilorik gabea, ez gatzik ez piperrik duena, traketsa, ezin irentsia, ezin gozatu eta ezin adierazi ari da euskalduna, baldres trauskil eta zantarra, traketsa alaena, berezkoa du ajea, hantustearen eta ez jakinaren umearena. Eta hau egia da. Testu formal bat izateko, eta berau egiteko astia nahiko eta soberan izateko, ez da batere maila ona. Esan bezala idaztean hizkuntzak hobea beharko luke izan, honen inguruan hausnartu eta pentsatzeko aukera ematen duelako testu idatzi batek.

Gutxi batzuk, ez dute maila txarra adierazi, hala eta guztiz ere, ez da beste munduko ezer. Euskara sinplean idatzia dago, eta askotan nahiz eta zuzentasunez eta

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

egokitasunez idatzi, beste ezer ere eskertzen da. Ezin dugu ahaztu jatortasunak euskarari ematen dion, eta berez duen, piper eta bizitasun hori. Euskara abestuz hitz egiten da, euskara txantxatia da, estiloz betea, eta hori da hemen ikusten ez dena. Baina, gehienbat arduratzekoa dena, haurren komunikazio gaitasun eza da. Izan ere, hizkuntzak horretarako bide eman behar du horretarako tresna den heinean.

Koldo Mitxelenak zioen lez, hizkuntza komunikatzeko tresna da, hau da, bestearengan eragiteko tresna, eta gaitasun hori galtzen badu ez du bere funtzioa betetzen, beraz ez du balio komunikatzeko.

Azterketa honetatik atera daitekeen ondorio nagusia, haurrek hurbileko euskara ez daukatela ikustea izan da. Honek zeresan handia du kalitateari jaramon egiten badiogu, izan ere, euskarak duen nortasun eza nabari da haurren testuetan. Ez da hizkuntza polita, ez da hizkuntza egokia, eta askotan zuzentasuna falta zaio. Teorian esan bezala, zuzentasuna egokitasunari lotuta egon behar du, eta ez da eman horren adibiderik.

4.2. Ahozko produkzioa

4.2.1. Euskara mailari zuzenduta

Ahozko produkzioari dagokionez, emandako erabilera nagusia haurren euskara maila aztertzearena izan da. Horretarako, eta diseinuan esan dudan moduan, haurrak testuinguru informalean harrapatzea izan da helburu nagusia. Horrela, haiek ez dute aurreikusten nolabaiteko ebaluazio bat izango dutela, edota nolabaiteko behaketa baten subjektu izaten ari direla. Honen helburu nagusia, euren hizkuntza naturala aztertzeko jakin mina izan da, izan ere, hiztun baten hizkuntza maila aztertzeko, bera eroso dagoen testuinguru batean ere ikusi behar da. Azken finean, gure produkzioa ez da sektore formalera mugatzen, eta gehiago diot, gure bizitzako denbora gehiena testuinguru informaletan igarotzen dugu, beraz hizkuntza bat menderatzen den seinale, eta berau komunikazio tresna gisa erabiltzen duen seinale, testuinguru informala da.

Horregatik, grabagailua poltsikoan sartu, eta aurretik egina zegoen konfiantzaz baliaturik, euren diskurtsoak grabatu ditut ondoren bertatik euren euskara maila aztertzeko. Kasu honetan, 4 multzo egin ditut, zeinak nire interesen arabera hizkuntzaren 4 ezaugarri nagusi aukeratuak izan diren. Alde batetik izen morfologia, non deklinabideak, ergatiboaren erabilera, eta izenari emandako bestelako erabilpen ez-ohikoak erabiltzen dituzten. Bestetik, aditz morfologia aztertuko dut, izan ere, azken hilabeteetan behatutakoarekin, hainbat akats plazaratzen dituztela antzeman dut. Hurrenez hurren lexikoa izango dut aztergai, batik bat hurrek erabiltzen dituzten erdarakada mordoa dela eta. Eta azkenik, eta modu nabarmenean, sintaxia, hau baita ezbairik gabe hurrek erakusten duten ahultasun puntu gorena. 4 ezaugarri hauetan egindako hanka sartzek, gaztelaniako hizkuntzatik hartutako egiturengatik dira. Baina ondorioetan sartu aurretik, erantzunei ekingo diet:

<u>IZEN MORFOLOGIA</u>	
Ergatiboa	<ul style="list-style-type: none"> - <u>Norbait</u> uzten arkatza? (norbaitek) - <u>Ni</u> baita! (nik baita!) - Nire <u>ama</u> ez daki (nire amak ez daki) - Nire <u>ama</u> pentsatu zuen... (nire amak pentsatu zuen...) - A <u>nik</u> ere igerilekura noa (A ni ere igerilekura noa) - Esnatzen zara <u>zu</u> nahi duzun orduan. (Esnatzen zara zuk nahi duzun orduan.) - <u>Ni</u> irabazu dut! (Nik irabazi dut!)
Atzizki okerra	<ul style="list-style-type: none"> - Gure <u>herriko</u> ondoan dagoen beste herri bat (gure herri ondoan dagoen beste herri bat.)
Gaztelaniatik	<ul style="list-style-type: none"> - Ni ere batzutan joaten naiz <u>oporrez</u>... (ni batzutan ere

hartutakoak	<p>joaten naiz oporretara)</p> <p>- Nire <u>aitak</u> dira erdaldunak. (Nire gurasoak erdaldunak dira.)</p>
--------------------	---

Ondorio zehatzak:

Izen morfologiari so eginez, akats gehienak ergatiboari begira izan dira. Akats hau nahiko ohikoa da 5. mailako haurrengan, izan ere, maiz zuzendu izan diet ikasgelan geunden bitartean ergatiboarekin egiten dituzten akatsak. Teorian ere, Orreaga Ibarra gazteen hizkerari dagokion ezaugarriei zuzentzerakoan, ergatiboa mintzatzen zuen gazteen artean hedatua zegoen akatsen arten. Baina akatsik esanguratsuena, izen morfologiari dagokionez, deklinabide okerrak erabiltzearena izan da, non argi eta garbi gaztelaniatik hartutako egiturak transkribatu diren. Adibidez; “*ni ere batzutan joaten naiz oporrez..*”. Hemen argi ikusten da, gaztelaniako “*de vacaciones*” horretatik datorrela. Edota “*nire aitak dira erdaldunak.*”. Kasu honetan ikusten dugu gaztelanian hain mintzatua den “*mis padres*” horretatik datorrela. Baina jakin badakigu euskarak ez duela bere hizkeran genero ezberdintasunik adierazten, eta ama eta aitari hitz berean erreferentzia egiteko hitza badugula; gurasoak alegia.

<u>LEXIKOA</u>	
Erdarakadak	<p>- Ez <u>porque</u> hartzen duzue metroa eta <u>yasta</u>. (Ez, metroa hartzen duzulako eta kitto.)</p> <p>- <u>Ombre</u> eske ezin dut moztu ongi. (Aizu ezin dut ongi moztu)</p> <p>- Ez baino <u>ya</u> hasten gara, <u>de paso</u>... (Ez baina hasi gaitzke orain, bide batez...)</p> <p>- <u>Si bai!</u> Pues ez...</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - <u>Si anda!</u> - <u>Estiratu</u> behar dugu <u>a tope</u>.(Ahal dugun arte egin behar dugu tira.) - Jarri behar zuen <u>el video del Jeti</u> eta ez zuen <u>funcionatzen</u>. (Jetiren filma jarri behar zuen baina ez zebilen.) - Bai <u>pues</u> hori, atera zait ongi niri. - <u>Ves!</u> (Ikusten!) - Ez, <u>ya</u> joan naiz. (Ez, dagoeneko joan naiz.) - <u>Suposatzen dut</u> zer esaten duten. (Esango dutenaren ideia bat egin dezaket.) - Zuk <u>ya</u> badakizu. (Zuk dagoeneko badakizu.) - Jartzen dute enborrezko <u>pared</u> bat. (pareta) - Nire herria dago Leitza ondoan, dagoela <u>romanoetako</u> zerbait. (Nire herria Leitza ondoan dago, bertan erromatarren zerbait dago.)
<p>Ingelesetik hartutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ander <u>motivation!</u> (Ander motibatu zaitez!) - Okay. (Ados.)

Ondorio zehatzak:

Lexikoari dagokionez, ondorioak izen morfologian baino dezente gardenagoak dira. Erdarakadak dira kasu honetan gehien nagusitzen direnak. Oso nabarmena da, haurrek duten lexiko urritasuna euskarari dagokionez. Hainbat hitz hartzen dituzte gaztelaniatik eta pixkanaka ere ingelesaren presentzia ere nabari da. Belarritik sartzean nolabaiteko harridura sortzen didaten esaldiak dira; hala nola “*Estiratu behar dugu a tope*”, “*Jarri behar zuen el video del Jeti eta ez zuen funcionatzen.*”, edota

“Jartzen dute enborrezko pared bat. “.

Azken finean honek erakusten du ez dela euskara jatorrik haurren hiztegiari erreparatuz, ez eta egokitasun zein zuzentasunik, izan ere, nahiz eta komunikatzeko balio duen, ez da hizkuntza bat erabiliz komunikatzen. Bi hizkuntzen nahasketa traketsa da lexikoko atalean antzematen duguna, eta hau ez da beste modu batera azaltzen hiztegi urritasun nabarmenez baino.

<u>ADIZ MORFOLOGIA</u>	
Aditz perifrastikoa trinkoaren orde	- 10etan <u>joaten ziren</u> lakura, eta beraiekin joan nintzen. (10etan zihoazen lakura, eta beraiekin joan nintzen)
-ten atzikia -ko edota -go orde.	- Norbait <u>uzten</u> arkatza? (Norbaitek utziko dit arkatza?) - <u>Joaten</u> gara beraingana? (Joango gara beraingana?) - Urte betean igual <u>joaten</u> naiz Holandara. (Hemendik urte batera joango naiz Holandara) - Suposatzen dut zer <u>esaten duten</u> (Suposatzen dut zer esango duten)
Erakutsi+-ten	- Guri erakusteko <u>abestea</u> . (Guri abesten erakusteko)
Aditza pluralean	- Etxeko lanak bai egin behar <u>da</u> . (Etxeko lanak bai egin behar dira.) - <u>Bazen</u> behin bi mutiko. (Baziren behin bi mutiko)
Ad.laguntzaile nahastea	- Nire laguna nahi <u>zara</u> izan? (Nire laguna nahi duzu izan)

Ondorio zehatzak:

Aditz morfologiari erreparatuz, nahiz eta hainbat erabilpen desegoki antzeman, ohikoena denaren adibidea jarriko dut. Izan ere, gaur egun, oso ohikoa bilakatu den joera baten aurrean gaude, eta azterketa hau egiterako garaian atera denez, aukera paregabea dut berau adierazteko. Oso ohikoa bilakatu da -ten atzizkia erabiltzea -ko edota -go atzizkien ordeiz. Nire ondorioei erreparatuz, gaztelanian errotzen dut berriro ere arazoa. Adibidez, *“Joaten gara beraiengana?”* esaldiari erreparatuz gero, ikusten dugu euskaraz *“joaten”* aditza, momentuko ekintza adierazteko erabiltzen dugula, adibidez, *“txokolate beroa hartzen ari naiz”*, aldiz, etorkizuneko ekintza bat erabiltzen badugu, nahiz eta etorkizun hurbila izan, kasu honetan den bezala, *“joango”* aditza erabili beharko genuke. Baina gaztelaniak honela esango luke, *“vamos a donde ellas?”*, hori dela eta transkribapen zuzena egitean haurrei *“joaten gara beraiengana?”* esaldia ateratzen zaie *“Joango gara beraiengana?”* esan ordeiz.. Hori dela eta, berriro ere gaztelaniako ohiturei atxikitzen diet aditz morfologiari dagokion, eta hain arrunta den akatsa.

<u>SINTAXIA</u>	
“Eske” partikula esaldi hasieran	<ul style="list-style-type: none"> - <u>Eske</u> dago gaizki. - Onbre <u>eske</u> ezin dut moztu ongi. - Ez, <u>eske</u> hor ez zen egin behar zatiketa. - <u>Eske</u> ni bizitzen naiz... - <u>Eske</u> nik daukat etxe bat Ermuan. - <u>Eske</u> daukat bideocinta bat zuretzako.
Aditza aurrean atzean behar duenean.	<ul style="list-style-type: none"> - Eske <u>dago</u> gaizki. (Eske gaizki dago) - <u>Ari zarete</u> egiten gaizki. (Gaizki egiten ari zarete) - Ez, porke <u>hartzen duzu</u> metroa eta yasta. (Ez, porke metroa

	<p>hartzen duzu eta yasta)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Onbre eske ezin dut <u>moztu</u> ongi. (Onbre, eske ezin dut ongi moztu) - <u>Esaten du</u> Lakuntzak ke nahi baduzu gero ahal zara <u>etorri</u> gurekin. (Lakuntzak esaten du ke nahi baduzu gero ahal zara gurekin etorri.) - Baino nik <u>jo behar dut</u> txarangan. (Baino nik txarangan jo behar dut) - Eta hamarretan <u>joaten ziren</u> musika entzutera. (Eta hamarretan musika entzutera joaten ziren.) - Ez, gaur ere <u>dago</u> suzko zezena. (Ez, gaur ere suzko zena dago) - Ez, eske hor ez zen <u>egin behar</u> zatiketa. (Ez, eske hor ez zen zatiketa egin behar.) - <u>Atera zait</u> ongi niri. (Niri ongi atera zait.) - <u>Neukan</u> ongi e! (Ongi neukan e!) - <u>Nago</u> nire lengusuekin eta <u>daude</u> hitzeiten frantsesez. (Nire lengusuekin nago eta frantsesez hitzeiten daude.) - Nire aitak <u>dira</u> erdaldunak. (Nire aitak erdaldunak dira) - <u>Erosi zuten</u> pisu bat eta <u>etorri ginen</u> hona bizitzera. (Pisu bat erosi zuten eta hona etorri ginen bizitzera.) - Eske nik <u>daukat</u> etxe bat Ermuan. (Eske nik etxe bat daukat Ermuan) - Nire herria <u>dago</u> Leitza ondoan, dagoela romanoetako zerbait. (Nire herria Leitza ondoan dago, romanoetako
--	--

	<p>zerbait dagoela.)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ba <u>ikusteko</u> ze egoeratan dagoen jendea. (Ba jendea ze egoeratan dagoen ikusteko.) - <u>Dagoela</u> Moskito bat. (Moskito bat dagoela.) - <u>Da</u> oso handia. (Oso handia da.) - Nire amak <u>nahi duelako ikastea</u> ingelesa. (Nire amak ingelesa ikastea nahi duelako.) - <u>Dago</u> igerilekua eta <u>joaten gara</u> hara. (Igerilekua dago eta hara joaten gara.)
“ke” partikula ez da euskaran erabiltzen	<ul style="list-style-type: none"> - <u>Ke</u> egin dut horrela. - A <u>ke</u> dala ideia ona. - Esaten du Lakunzak <u>ke</u> nahi baduzu etorri ahal zara gurekin.
Azalpen testuetan “nola”-z hasitako esaldiak	<ul style="list-style-type: none"> - <u>Nola</u> esan didazu hau horrela dela... (hau horrela dela esan didazunez...)
Ere partikularen erabilpena	<ul style="list-style-type: none"> - Eta <u>ere</u> egoten naiz..
Kausazko esaldietan –ko atzizkiaren ordezkariak “zergatik...”	<ul style="list-style-type: none"> - Zergatik nago pozik. (Pozik nagoelako.) - Zergatik ez dudalako nahi. (Ez dudalako nahi.)

Ondorio zehatzak:

Aurretik mintzatutako guztiez gain, ez dago hanka sartze handiagorik syntaxian ematen dena baino. Argi eta garbi, kutsatuen dagoen alderdia dugu syntaxia. Emaitzak

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta beraz baldintzatzen duten faktoreak.

behatz gero, argi eta garbi nabari da gaztelaniak haurrengan hartu duen eremu linguistikoa, eta sintaxia izango da honen adibide paregabea. Sintaxiari dagokionez, hainbat ezaugarritan banatu dut; hala nola, hain entzunda dugun “ke” eta “eske” partikulak. Bestetik, argudio testuetan “zergatik” hitzarekin hastea, edota azalpen testuetan “nola” hitzarekin hastea. Eta azkenik, eta haurrak gehien errepikatzen duten ereduak izani, aditza aurrean jartzearena.

Egia esan, ondorio harrigarriak atera ditut, behin azterketa hau martxan jarri dudanetik, izan ere, ez nuen espero horrelako desordenik hizkuntzan. Baina behin ezaugarri ezaugarri aztertzen hasita, ez da nolana hikoia egun haurrek normalizatu duten hizkuntza ereduak. Esan dezaket sintaxi aldetik, haurrek gaztelaniatik hartzen dituztela ia egitura guztiak. Eta egiturez gain, gaztelaniako partikulak ere normalizatu dituzte gure hizkuntza horien arabera egituratuz. Banaka aztertuz gero, jabetzen gara gaztelaniatik euskarara pasatako transkribapenak direla, eta jakin behar dugu hizkuntza baten araua ez dela beste baten sistemaren bidez itzuli behar. Adibide garbia dugu gaztelaniako “*se supone*” formatik “*suposatzen da*” aditz joskera inbertsonala ondorioztatzea.

Hala eta guztiz ere, jabetu behar gara gaztelania eta euskara ez datozela sistema beretik, eta bata bestean oinarritzeak ez duela ez hanka ez buru. Sintaxiko atalak erakutsi dit haurren ama hizkuntza gaztelania dela ia kasu guztietan, izan ere, euskaraz hitz egitean ez dute errespetatzen hizkuntzaren sistema, eta zuzenean gaztelaniako egitura aplikatzen dute. Adibidez aditza aurretik jartzea gaztelaniako kutsu nabarmena du. Berau ziurtatzeko transkribapena egitea besterik ez dugu; adibidez, “*Nago nire lengusuekin eta daude hitzeitan frantsesez.*”. Esaldi honek ez du euskarazko egitura aditza beti aurrean jartzen duelarik, aldiz, gaztelaniako egitura berbera du; “*Estoy con mis primxs y estan hablando en francés.*”. Baina jakin badakigu euskaraz aditza beti atzean doala eta esaldia horrela beharko lukeela; “*Nire lengusuekin nago eta frantsesez hitz egiten daude.*”.

Bestalde, eta argudio zein azalpen testuetan “nola” eta “zergatik” hitzekin hasteak ere, gaztelaniako kutsu nabarmena du. Gaztelaniaz horrelako esaldiak honela hasten direlako: “*como perdi la cartera...*”, edota “*Porque yo lo valgo*”. Horregatik

haurrek, *zergatik* eta *nola* bezalako hitzak sartzen dituzte mota honetako testuetan. Berrero ere gaztelaniako ereduak dutelako buruan. Argi eta garbi dago, sintaxiarekin zerikusia duten desitxuratze guztiak gaztelaniak kutsatutako sistematik eratorriak direla. Honek, jakina, haurren euskara mailari zuzenean eragiten dio, bai eta kalitatezko hizkuntza beraren iraupenari ere.

4.2.2. Emozioen adierazpena aztergai

Ahozko produkzioari dagokionez, eta azterketaren diseinuan esan bezala, bigarren atalari ekin diot, non haurren emozioen adierazpena aztertzea jo dudana. Atal honetan, haurrei eskatu diet euren sentimendu zein emozioak adieraztean nola egiten duten edota ze esaldi botatzen dituzten. Hau egin izanaren zergatia, euskarak egungo haurretan daukan egitekoa aztertzea izango da, hots, haurrek euskara komunikatzeko tresna bezala ikusten duten edota ez. Azken finean euskarak ez badu balio gure buruak lasaitzeko eta gure kideengan emozioak eragiteko, euskara hori ez da kalitatezkoa izango.

Hauek dira lortu ditudan erantzunak haserrea, tristura, poza eta harridura adierazteko eskatu didanean:

Haserretzen zaretenean nola haserretzen zarete?

- Gilipollas!
- Hijo de puta cabronzao de mierda!
- Ostias!
- Mierda!

Nola harritzen zarete?

- Ala!
- Como mola!
- Ostias!
- Esto es muy fort!

Eta pozten garenean?

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

- Que guai!
- Como mola!
- Impresionante!
- AAAAAhhhhh q guai!
- O my god!
- Uaaaaa uuuuu!!!!

Eta maitemintzen garenean?

- Zorionak!
- Ai ze guai!

Triste gaudenean?

- Me siento fatal.
- Vaya caca.
- Aaaa q caca...

Ondorio zehatzak:

Aurreikusita nuen moduan, hurrek argi eta garbi erakutsi dute ez direla gai, edota ez zaiela naturalki ateratzen euren emozioak euskararen bitartez adieraztea. Honek zeresan handia du hizkuntzaren kalitatearen inguruan, eta oraingo honetan ere, marko teorikoak elikatu egiten du azterketen erantzuna. Beraz, arestian adierazi bezala, teoria berretsi egiten ditu lorturiko erantzunak, eta ikusten dugu haurrak jada ez direla haserretzen, maitemintzen, harritzen zein goibeltzen euskaraz. Berehala jotzen dute gaztelaniara. Oraindik eta larriagoa dena da, euskaraz esaldi bat esan baino, lehenago pasatzen direla ingelesera “o my god” edota bestelakoak esanez.

Azken finean, ikusten da euren ohiturak euskaratik asko urruntzen direla, eta ez dutela euskara komunikazio tresna gisa erabiltzen. Beraz, euskarak ez badu balio gure buruak lasaitzeko eta gure kideengan emozioak eragiteko, euskara hori ez da kalitatezkoa izango, nahiz eta oso zuzenki esanda egon. Lehenago erabiltzen dute gaztelania euren amorrua edota bestelako emozioak adierazteko. Beraz galdera honakoa da. Zergatik ez dute euskara komunikazio tresna gisa erabiltzen? Azken

finean, euskara lehen hizkuntza gisa erabiliko bazuten, arazorik gabe eta naturalki aterako zitzairen euskara haserre daudenean, edota goibel daudenean. Gainera, eskolan lantzen dira noizbehinka honelako esaldi zein esamoldeak, baina antza denez gero ez dago gunerik ikasitakoa praktikan jartzeko. Beraz, hain erdaldunduta al dago haurren inguru informala? Hain nabarmena al da gaztelania eskola kanpoko esparruetan?


4.3. Galdeketak

Galdeketa hau egin izanaren zergatia, euren eguneroko testuinguruan nagusi den hizkuntza aztertze aldera izan da, izan ere, aurreko ataletan ikusitako emaitzei erreparatuz, argi eta garbi dago euskara askorentzat ez dela ama hizkuntza eta eskolatik kanpo gaztelaniaz ibiltzen direla. Hori dela eta jarraian datozen bigarren galdeketen emaitzak beraien inguruari zuzenduak joango dira. Hemen ditugu bi galdeketetan jasotako emaitzak:

4.3.1. Galdeketa I:

Galdeketa hau, 8 galderaz osatuta dago galdeketa eta galderak erdi itxi-erdi irekiak izan dira, hau da, alde batetik aukera zitzaketen termino batzuk aurkeztu zaizkie, hauen artean bat baino gehiago hartu ahal zutelarik eta bestalde, zergatiak edo hausnarketak idazteko askatasuna eskaini zaie. Emaitzetan haurrek idatzitakoa testualki eta jaso bezala azalduko dut.

1.- Ondorengo zein testuingurutan erabiltzen duzu euskara gehienbat? Eta gutxien? (Eskola, lagunekin nagoenean edota etxean).




Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

Emaitza hauen arabera zera esan dezakegu, hurrek eskolan egiten dutela maizago euskara, etxean edo lagun artean baino. Izan ere, 21 lagunetatik 15ek diote euskara gehien eskolan hitz egiten dutela eta kopuru hau alderantziz ipintzen da etxeari dagokionez, hau da, 21etik 13 lagunek diote etxean nagusiki erabiltzen duten hizkuntza gaztelera dela. Lagun artean ere gehiengoak gaztelera hitz egiten du.

Ondorio zehatzak:

Ezbairik gabe, lehenengo galdera honek ondorio garbi batera eramaten gaitu, euskara erabiltzen duten testuinguru nagusia testuinguru formala dela, nagusiki eskola. Bestalde, gaztelararen erabilera eremu informaletan gailentzen da, etxea edo lagun artea nagusiki. Galdera honi dagokionez ez dago zer eztabaidatu erantzunak oso garbiak direlarik. Hurrek euskara eskolarekin erlazionatzen duten gehiengo handi bat dago, beraz, marko teorikoan adierazten genuen bezala, ikusten da hurrek ez dutela

2.- Euskara asko erabiltzen duzulakoan zaude? Zergatik?



Euskararen erabilerari buruz galdetzerakoan, erdiak ez duela asko erabiltzen dio, laurdenak baietz dio eta beste laurdenak erdizka erabiltzen duela dio.

Zergatiei erreparatzen badiegu, hainbat ikus ditzakegu baina hemen gehien errepikatzen direnak eta garrantzitsuenak azalduko ditut:

- Ez. Bakarrik erabiltzen dudalako ikastolan eta etxean eta batzuetan lagunekin.
- Ez. Bakarrik eskolan egiten dudalako.
- Ez. Euskara gaztelania baino zailagoa delako.
- Ez. Ez dudalako kostunbrea eta ez nago ohituta hizkuntza hori hitz egitera.
- Ez, nire ia familia osoak ez dakidalako hizkuntza eta ateratzen zaidalako.
- Erdizka. Lagunekin nagoenean nola ez daude irakasleak esateko “euskara egin”, orduan gauza batzuk ihes egiten zaizkit.
- Erdizka asko herrian baina etxean gutxiago.
- Gehien erabiltzen dut herrian zeren hango lagunak euskaraz dakitelako bakarrik.
- Bai, herrian hitz egiten dudalako, eta ere bai nire anaiarekin, eta kasi nire familia guztiarekin

Ondorio zehatzak:

Emaitzak aztertuta ikusten dugu hurrek duten euskararen erabilera oso eskasa dela, orokorrean gaztelaraz hitz egiteko ohitura dute eta gainera honen jakitun dira, arrazoitzeko diren heinean.

Arrazoitzeko garaian hainbat argumentu ikusi dira eta honekin ere ondorio batzuk atera ditut. Alde batetik badago inor zailtasunari botatzen diona errua, euskara erdara baino zailagoa omen da. Hala ere, ikusgarri geratzen da azken finean euskara 2.hizkuntza bezala hartzen duela, izan ere, Txinatarra ez dakien inor hizkuntza hau ikasten hasten bada oso zaila egingo zaio, aldiz, ama hizkuntza gisa Txinatarra izan duen batentzat, hizkuntza hau erraza egingo zaio eta bestalde, besteren bat ikastea zailagoa.


Beste alde batetik, euskara gutxi erabiltzen duten haur horien artean badago beste sektore bat familia, eskola eta ohitura lotzen dituena. Gehiengo honek ohitura faltari edo familiaren ezjakintasunari egozten diote nagusiki gaztelera hitz egitea, hau

Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

da, testuinguruan ikusten dutenaren arabera hartzen dute hizkuntza bat edo bestea hitz egiteko hautua.

Hau guztiaz gain, euskara nahikoa hitz egiten dutela diotenen artean emandako arrazoi nagusien irakurketa bat egitea interesgarria deritzot. Izan ere, hainbatetan errepikatu dute “herrian” gehiago hitz egiten dutela, baita bertan euskara gehiago hitz egiteko ohitura handiagoa dagoela ere. Iruñea bezalako hiri batekin alderatuz, testuinguru geografikoak ere zeresan handia duela esango nuke. Bestalde, egituraketa soziala ez da berdina hiri edo herri txiki batean, hau da, Iruñean jende gehiago bizi da eta kanpotik (Espainiatik eta beste herrialdeetatik) euskaraz ez dakien jende asko etortzen da lan egitera komertzio/industria zentroa izateagatik edo baita ikastera ere, unibertsitateak bertan daudelako. Azken honi dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasketa eskaintza nagusiki gaztelerez izateak eragin handia du, pertsona gazteleradun gehiago erakartzen dituelako euskarazko ikasketak egin nahi dutenak baino. Pertsona hauek guztiek egiten dute testuingurua. Aldiz herrietan, ikus genezake egituraketa sozialari dagokionez bertako jendearen joan etorriak txikiagoak direla eta akaso tradizioari zein hizkuntzari gehiago heldu ahal izan diotela, euskararen mantentzea erraza izan ez bada ere, kanpoko eraginak txikiagoak izan direlako.

3.- Gurasoak erdaldunak al dituzu? Eta familia orokorrean?




Oharra: haur guztiek dute gurasoren bat erdalduna, pare bat kasutan izan ezik.

Ez dago nagusiki gailentzen den hizkuntzarik haur hauen familien kasuan. Emaizak ikusita nahiko parekidea dela deritzot, hau da, guraso zein familiako kideak euskaldunak eta gazteleraadunak dira ia proportzionalki.

Ondorio zehatzak:

Emaizta hauek ikusterakoan elebitasunaren kontzeptua ekartzen dut gogora. Haur hauek galdera honetan familiako kideen artean hizkuntzaren jakintza maila nahiko parekidea dela diote, baina aurreko galderan ikusi dugu nola familiaren ezjakintasunaren eta hizkuntza ohituraren inguruko aipamenak ugariak diren. Hau honela izanik, euskaraz dakiten senitartekoez gaztelera ere badakitela aurreikusiaz, gizartean ematen den patroia bat delako euskaldunak gaztelera ere jakitea, euskaraz ez dakiten kideekin komunikazioa bideratu nahian gailentzen den hizkuntza gaztelera da. Ondorioz, hizkuntza ohitura gazteleraaduna nabarmentzen da eta euskaraz hitz egiteko ohitura gutxitu. Ohitura hau indartu egiten da haurren erantzunei erreparatuz gero bi gurasoak euskaldunak dituen pertsonarik ia ez dagoela ikusita. Beraz, berriro ere, euskararen ezjakintasunak hizkuntza ohiturak baldintzatzen ditu testuinguru erdaldun bat sortzen lagunduaz. Aurretik aipatu dugun moduan, Txillardegik esaten zuen egon daitekeela talde bat non gehiengoak euskara dakien, nahikoa dela gutxi batzuk erdaldun elebakarrak izatea gaztelaniaz hitz egiten hasteko.

4.- Zein da etxean entzuten duzun hizkuntza nagusia?



Nafarroako euskararen maila Lehen Hezkuntzan, eta berau baldintzatzen duten faktoreak.

Emaitzak zurrinak dira, erdiak baino gehiagok gaztelera hitz egiten du etxean, eta haurren beste erdiak gaztelera eta euskara tartekatzen ditu, euskara hutsean hitz egiten dutenak gutxiengoa direlarik. Salbuespen gisa noizik eta behin ingelera hitz egiten duenik ere bada.

Ondorio zehatzak:

3. galderaren erantzunaren ildo bereko ondorioak ikus ditzaket hemen. Lehen ikusi badugu ere denek dutela gurasoren bat euskalduna dena, hizkuntza ohiturak gaztelarrak direla argi uzten digu honek beste behin. Elebitasunaren trama ageri da oraingoan ere, hau da, gizartean argi ikusten dugu euskaraz dakien hiztun oro elebiduna dela gaztelera ere menperatzen duelako eta honekin komunikatu daitekeelako, aldiz, gaztelera dakien gehiengoak ez du euskara menperatzen eta are gutxiago komunikatzeko gaitasunik izaten. Honen ondorioa garbia izan ohi da, euskaldun elebidunek, gaztelerazko elebazarrek ohiturak hartu behar izaten dituzte baldin eta komunikazio sistema egoki bat sortu nahi badute.

5.- Gaur egungo Nafarroan ze hizkuntza iruditzen zaizu beharrezkoagoa, euskara ala erdara?

Euskara	19
Gaztelera	3

Gehiengo garbiak beharrezkoagoa den hizkuntza euskara dela dio. Hona hemen arrazonamendu batzuk:

- Euskara, bestela desagertuko da
- Euskara, bestela galdu egingo delako
- Euskara, baina nire ustez galtzen ari da


- Euskara, galtzen ari delako eta orduan errekueratu nahi dugulako
- Euskara, galtzen ari delako eta hizkuntza polita da
- Euskara desagertzeko zorian dago eta Euskal herriko idioma euskara da
- Gaztelera zergatik Nafarroan guztiak dakite
- Gaztelania zeren, jende gehienak gaztelania daki, orduan, denak ulertzeko Gaztelania egiten dugu.
- Biak, euskara, zabaltzeko eta erdara Espainian gaudelako

Ondorio zehatzak:

Gehiengoak euskara garrantzitsua dela esaten dutenez, sentsibilizazioa badagoela esan genezake eta arrazoimenak ikustean ondorio hau indartu egiten da, arrazoi nagusia galtzeko zorian egotea delako. Kontrako aldetik, gaztelera garrantzitsuagoa diotenen artean, praktikotasunari erreparatzen diote nagusiki.

Edozein hizkuntzaren alde edo kontrakoek konbentzio sozial edo diskurtso hegemonikoa jarraitzen dutela atzematen da, izan ere, bi argumentu hauek dira gizartean nagusienak: euskara erabili behar dela ez galtzeko baina gaztelera praktikoagoa dela ezagutza maila altuagatik. Konbentzio sozialak izateaz gain, argumentu hauek arriskutsuak direla deritzot, batez ere erabileran duten emaitzagatik. Euskara gal ez dadin erabili BEHARRA dagoen zerbait bezala ulertzerakoan, pentsamendu negazionista batetik habiatzen gara, argumentuak ez dira positiboak edo horrela planteatzen; balio kulturala mantendu nahi izatea, Europako hizkuntza zaharrenaren balioa errekonozitzea, komunikatzeko nahikoa dela sentitzea... Honi, gaztelarari sozialki ematen zaio komunikazio gaitasun gainbalioa gaineratzen badiogu, euskarak praktikotasuna galtzen du imaginario kolektiboan eta horregatik ez da erabilera normalizatzen.

6.- Zenbat irakurtzen duzu euskaraz normalean?



